Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko otsailaren 25a, astelehena — 38 — Lunes, a 25 de febrero de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HONDARRIBIKO UDALA

*Hiri bizikidetzari, ondasun publikoak errespetatzeari eta eremu publikoaren garbiketa, okupazioa eta erabilera arautzeari buruzko Ordenantzaren behin betiko onarpena.*

Udalbatzak 2018ko ekainaren 7ko ezohiko bilkuran hiri bizikidetzari, ondasun publikoak errespetatzeari eta eremu publikoaren garbiketa, okupazioa eta erabilera araupetzeari buruzko ordenantzari hasierako onespena eman zion.

2018ko ekainaren 29an 125. zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jendaurrean 30 lanegunez erakutsi ondoren, baita Udaleko Iragarki Oholean ere 2018-06-18tik 2018-08-13ra, jendaurreko epea bukatu ondoren, bi alegazio idatzi aurkeztu ziren.

Horiek onartzea edo baztertzea ebatzi ondoren, eta onartutakoen ondorioz testuan dagokion aldaketak eginda, Udalbatzak 2018ko azaroaren 29ko ezohiko bilkuran aipatutako ordenantza behin betikoz onartzea erabaki zuen.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Hala nahi luketen pertsonek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute haren aurka Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoetarako Aretoan, hura argitaratu ondoreneko bi hilabeteko epean.

Beraz, Udalbatzarrak onartutakoa betez, apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluak xedatzen duenarekin bat etorriz, jarraian behin betiko onartutako ordenantzaren testu osoa argitaratzen da:

Udal Ordenantza, hiritarren bizikidetasunari, ondasun publikoak zaintzeari eta eremu publikoaren garbiketa, okupazioa eta erabilera arautzeari buruz.

— Aurkibidea:

Zioen azalpena.

Atariko titulua.

I. kapitulua. Xedapen Orokorrak. (1-5 art.).

II. kapitulua. Bide publikoen izendapena eta errotulazioa. (6-7 art.).

I. titulua. Jokabide zibikoa bide publikoan.

I. kapitulua. Xedapen Orokorrak. (8-11 art.).

II. kapitulua. Hiritarren bizikidetza. (12-18 art.).

II. titulua. Espzio publikoaren garbiketa.

I. kapitulua. Bide publikoa garbitzea ohiko erabileraren ondorioz. (19-33 art.).

II. kapitulua. Bide publikoaren garbiketa erabilera arrunt bereziaren, erabilera pribatiboaren eta ekitaldi publikoen ondorioz. (34-37 art.).

III. kapitulua. Egiten diren obrei loturiko bide publikoaren garbiketa. (38-43 art.).

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal sobre convivencia ciudadana, respeto de bienes públicos y regulación de la limpieza, ocupación y uso del espacio público.*

El Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria celebrada el día 7 de junio de 2018 aprobó inicialmente la ordenanza municipal sobre convivencia ciudadana, respeto de bienes públicos y regulación de la limpieza, ocupación y uso del espacio público.

Sometida a información pública durante el plazo de 30 días hábiles mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa num. 125 de 29 de junio de 2018, así como en el Tablón de Anuncios Municipal desde el 18-06-2018 al 13-08-2018 y transcurrido el plazo de la exposición pública, se presentaron dos escritos de alegaciones.

Habiéndolas resuelto, estimando o desestimándolas, e incorporados en el texto los cambios procedentes en base a las estimaciones, el Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria celebrada el día 29 de noviembre de 2018 acordó aprobar definitivamente la citada ordenanza municipal.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

En cumplimiento de lo acordado por el Ayuntamiento Pleno, en consonancia con lo establecido por el artículo 70.2 de la Ley 7/85, de 23 de abril, a continuación se publica el texto íntegro de la ordenanza aprobada definitivamente:

Ordenanza municipal sobre convivencia ciudadana, respeto de bienes públicos y regulación de la limpieza, ocupación y uso del espacio público.

— Índice:

Exposición de motivos.

Título preliminar.

Capítulo I. Disposiciones Generales. (Art. 1-5).

Capítulo II. Denominación y rotulación de las vías públicas. (Art. 6-7).

Título I. Normas de convivencia ciudadana en el espacio público.

Capítulo I. Disposiciones Generales. (Art. 8-11).

Capítulo II. Convivencia ciudadana. (Art. 12-18).

Título II. Limpieza del espacio público.

Capítulo I. Limpieza de la vía pública por su uso normal. (Art. 19-33).

Capítulo II. De la limpieza como consecuencia del uso común especial, del privativo y de los actos públicos. (Art. 34-37).

Capítulo III. De la limpieza de la vía pública como consecuencia de la ejecución de obras. (Arts. 38- 43).

III. titulua. Higiezinen kanpoaldeko garbiketa.

I. kapitulua. Eraikin publiko eta pribatuen kanpoaldeko garbiketa. Hiri paisaiarekiko errespetua. (44-48 art.).

II. kapitulua. Urbanizazio eta orubeen garbiketa. (49-50 art.).

IV. titulua. Bide publikoaren okupazioa eta erabilera.

I. kapitulua. Xedapen Orokorrak. (51-53 art.).

II. kapitulua. Eremu publikoa tripulaziorik gabeko aire ibilgailuen hegaldirako erabiltzea (54 art.).

III. kapitulua. Bide publikoa apustuak egiteko erabiltzea. (55 art.).

IV. kapitulua. Erreserbak eta mugarritzeak obretarako eta besterako (56. art.).

V. kapitulua. Hondartza eta bainurako eremuak erabiltzea. (57 art.).

V. titulua. Zigor erregimena.

I. atala. Arau-hausteak, arau-hauste motak, isunak eta borondatezko lanak (57-60 art.).

II. atala. Arduradunak. (61 art.).

III. atala. Kaltea konpontzea eta garbiketaren egoera leheneratzea. (63 art.).

IV. atala. Zehapen prozedura. (64 art.).

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Azken xedapena.

## ZIOEN AZALPENA

Hondarribia eraikin, kale, parke eta plaza multzo bat baino zerbait gehiago da. Hiria, oinarrian, hiritarrek osatzen dute. Haiek partekatzen dituzte, elkarte eta eragile ekonomikoekin, hiria eraikitzeko lanak, hain zuzen ere bizikidetza hobetzeko. Hiriaren hobekuntza eta garapena Udalaren helburuetako bat da, baina hiriaren bizitzan parte hartzen duten eragile guztien helburua izan beharko luke.

Hiria hobetu egiten da bere osagai fisikoak hobetuz, baina baita jokaera zibikorako jarraibideak hobetuz ere, hiritarrei bizikidetza hobetzeko aukera ematen dieten heinean. Arau batzuk betez hiri hobea egingo dugu bertan bizi direnentzat eta bisitarientzat.

Helburua Hondarribia sozialki hiri elkartuagoa, garbiagoa, zibikoagoa eta atseginagoa egitea da, pertsonen eskubideak errespetatzen dituen hiria, ondarea eta eremu publikoak babesten dituen hiria; hartarako beharrezkoa da hondarribiar eta bisitarien inplikazioa eta parte-hartzea.

Modu zibikoan jokatzea hiria eta herrikideak errespetatzea da. Modu ez zibikoan jokatzen duen gutxiengoak guztien eskubideak kaltetzeaz gain bizikidetza balioei eraso egiten die. Gutxiengo ez zibiko hori hondarribiar gehienen aurrean begirune eta solidaritate eza da, gehiengo horrek hiritar gisa dagozkion eskubide eta betebeharrak onartzen dituen heinean.

Gizalegearen kontrako ekintza horiek, errespetu eta solidaritate eza izateaz gain, diru publikoan kostu handia dakarte, inbertsioa egin behar baita garbitasun, mantentze lan, konponketa lan eta ondasunak leheneratzeko lanetan. Gastu horiek beste helburu bat izan lezakete.

Eremu publikoak eta ondarea errespetatzea iraunkortasuna hobetzea da, eta bidea ematen du aurrekontua arrazionaltasun handiagoarekin erabiltzeko lehentasuna duten gaietan. Eta ondorioz, hiri solidarioagoa eraikitzeko.

Ez da erraza gizalegearen aurkako jokaeraren arazoa sustraitik moztea: Arlo askotatik egin daiteke lan: Ikastetxe, familia,

Título III. Limpieza exterior de los edificios.

Capítulo I. De la limpieza exterior de edificios públicos y privados. Respeto al paisaje urbano. (Art. 44-48).

Capítulo II. De la limpieza de urbanizaciones y solares. (Art. 49-50).

Título IV. Ocupación y uso del espacio público.

Capítulo I. Disposiciones generales. (Art. 51-53).

Capítulo II. Utilización del espacio público para el vuelo de vehículos aéreos sin tripulación. (Art. 54).

Capítulo III. Utilización del espacio público para apuestas. (Art. 55).

Capítulo IV. Reservas y acotamientos para obras y otros (Art. 56).

Capítulo V. Utilización de la playa y zonas de baño. (Art. 57).

Título V. Régimen sancionador.

Sección I. Infracciones, clases de infracciones, sanciones y trabajos voluntarios. (Art. 58-61).

Sección II. Responsables. (Art. 62).

Sección III. Reparación del daño y ejecución de la reposición del estado de la limpieza. (Art. 63).

Sección IV. Procedimiento sancionador. (Art. 64).

Disposición derogatoria única.

Disposición final.

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hondarribia es algo más que un conjunto de edificios, calles, parques y plazas. La ciudad la forman, fundamentalmente, sus habitantes. Son las personas que comparten con instituciones, asociaciones y agentes económicos la tarea colectiva de construir ciudad y de hacerlo con la idea de mejorar la convivencia.

La mejora y evolución de la ciudad forma parte del objetivo del Ayuntamiento, pero también debería serlo de todos los agentes que intervienen en la vida de la ciudad. La ciudad se mejora modernizando sus elementos físicos, pero también mejorando las pautas de comportamiento cívico que permitan a los ciudadanos mejorar su convivencia. De esta manera construiremos una ciudad mejor para quienes la habitan y la visitan.

Hacer de Hondarribia una ciudad más cohesionada socialmente, limpia, cívica y acogedora, respetuosa con los derechos de las personas, que proteja el patrimonio y los espacios públicos requiere de la implicación y participación de todos los hondarribiarras y visitantes.

Actuar de forma cívica supone respetar a la ciudad y a sus conciudadanos. La minoría que actúa de forma incívica no sólo daña bienes que se suponen de todos, sino que ataca a los valores de la convivencia. Suponen una falta de respeto e insolidaridad hacia una gran mayoría de hondarribiarras que asumen sus derechos y deberes como ciudadanía.

Además de esa falta de respeto y solidaridad, las acciones incívicas suponen un gran coste de dinero público que se debe invertir en labores de limpieza, mantenimiento, reparación y reposición de bienes. Tales gastos podrían tener otro destino.

Respetar los espacios públicos y el patrimonio es mejorar la sostenibilidad, permite aplicar el presupuesto con mayor racionalidad a lo más prioritario. En consecuencia, construir una ciudad más solidaria.

No es fácil atajar de raíz el problema del comportamiento incívico: son muchos los campos donde se debe trabajar. Los cen-

EK\CV GAO-I-2019-00997

hiritarren mugimendu, elkarte eta abarretatik. Beraz, gizarteak, oro har, heldu egin behar dio hiria errespetatzearen aldeko talde lanari, eta paisaia eta ondarea babestu behar ditu irtenbide nagusi gisa, izan ere eraginkorragoa da jokaera horiek zuzentzea ekonomikoki zigortzea baino.

Udalak azken urteetan ahalegin handia egin du hondarribiarren bizi kalitatea hobetzeko: Kaleak eta auzoak berritu ditu, oztopo arkitektonikoak kendu dira, hiri altzariak berritu dira, kale eta bideak garbitu dira, pintadak kendu dira. Ekintza horiek lagundu egiten dute hondarribiarrengan jokaera zibikoa sortzen.

Hala ere, gizalegearen aurkako zenbait ekintza bakanek frustrazioa sortzen dute, izan ere hobekuntzak ez dira finkatzen, eremu publikoak ez baitira egoki erabiltzen.

Gure hirian, beste hainbatetan bezala, arazoak ditugu pintadek, grafitiek, etxeko animalien gorotzek, lurrean botatako zaborrek, motoen zarata gogorrek, kutsadura akustikoaren maila gainditzen duten jarduerek, ekintza bandalikoek hondatutako hiri altzari eta haur jolas hondatuek, zabor edukiontzien erabilera okerrak, kalean egindako pixek eta abarrek sortuak.

Hondarribiko Udalak Ordenantza honekin hiritarren bizikidetasuna hobetu nahi du, eta hala ordenantza tresna bat gehiago izango da jokaera eta portaera arduragabeak zuzentzeko. Dena dela jakitun gara gizalegearen aurkako jokaerak zehatuta ez dugula nahi dugun emaitza lortuko, eta beharrezkoak izango direla hezkuntzaren alorreko ekintzak eta familia barruan transmititzea jokaera ez zibikoak ekiditeko.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua.*

Ordenantza honen helburua bide publikoan gizalegeko jokaera arautzea da; era berean bide publikoaren garbitasuna eta okupazioa arautuko dira, bertan ematen diren erabilerei dagokienez.

— Bide publikoaren ohiko erabilera.

— Bide publikoaren erabilera berezia.

— Bide publikoaren erabilera pribatiboa.

— Bide publikoaren erabilera zerbitzu publikoen euskarri den neurrian.

— Obra publiko eta pribatuak egiteko beharrezko erabilera.

Era berean, Ordenantza honen helburua eraikuntzaren Udal Ordenantzen erregulazio osagarria egitea da, higiezin edo eraikin publiko nahiz pribatuen apaindurari dagokionez, fatxada bide publikora duten eraikinen kasuan.

*2. artikulua. Eragin esparrua.*

Ordenantza hau aplikagarria da Hondarribiko Udalerri osoan.

*3. artikulua. Bide publikoaren erabilerari buruzko printzipio orokorrak.*

1. Bide publikoak, eremu publikoak, instalazioak eta bertako hiri altzariak hiritarrek erabiltzeko dira, ondasunen izaeraren arabera eta norberaren askatasunaren eta gainerako pertsonenganako errespetuaren printzipioen arabera.

2. Bide publikoan garatzen diren jarduerek ezin dute besteek erabilera orokorrerako duten eskubidea mugatu, salbu eta erabilera komun edo pribatiborako baimena edo emakida baldin badago.

tros educativos, la familia, el movimiento ciudadano, las asociaciones, y la sociedad en general debe abordar la tarea colectiva de fomentar el respeto por la ciudad, proteger el paisaje y patrimonio como principal solución, ya que es más efectivo corregir esas actitudes que sancionarlas económicamente.

El Ayuntamiento ha realizado en los últimos años un importante esfuerzo con el objetivo de mejorar la calidad de vida de los hondarribiarras: renovación de calles y barrios, en las que se han eliminado barreras arquitectónicas, renovación de mobiliario urbano, la limpieza viaria, eliminación de pintadas. Estas acciones contribuyen sin duda a provocar una actitud cívica en los hondarribiarras.

Sin embargo, aisladas actitudes incívicas provocan frustración al observar que las mejoras no se consolidan por el uso inadecuado de los espacios públicos.

En nuestra ciudad, como en tantas otras, sufrimos los problemas ocasionados por las pintadas, grafitis y cartelería, excrementos de animales domésticos, vertidos de basura al suelo, ruidos estridentes producidos por motos y actividades que superan los niveles máximos de contaminación acústica, mobiliario urbano y juegos infantiles deteriorados por actos vandálicos, mal uso de los contenedores de basuras, orín en la calle, etc.

El objetivo del Ayuntamiento de Hondarribia con esta Ordenanza es el de mejorar la convivencia ciudadana, como una herramienta más en la corrección de actitudes y comportamientos irresponsables. No obstante, somos conscientes de que sólo con la sanción de las conductas incívicas no lograremos el resultado deseado, y serán necesarias acciones en el ámbito de la educación y la transmisión en el seno de la familia para prevenir comportamientos incívicos.

TÍTULO PRELIMINAR

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación del comportamiento civico en la vía pública, así como de la limpieza y ocupación de la misma, en relación con los diversos usos que en ella se efectúan:

— Uso normal de la vía pública.

— Uso especial de la vía pública.

— Uso privativo de la vía pública.

— Uso como soporte de servicios públicos.

— Uso necesario para la realización de obras públicas y privadas.

Asimismo es objeto de esta Ordenanza la regulación complementaria de las Ordenanzas Municipales de edificación en lo que se refiere a ornato de inmuebles o edificios, públicos y privados, con fachada a la vía pública.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

La presente Ordenanza es de aplicación en todo el término municipal de Hondarribia.

*Artículo 3. Principios generales sobre la utilización de la vía pública.*

1. Las vías públicas, los espacios públicos, las instalaciones y el mobiliario urbano ubicados en ellas, son destinados al uso general y disfrute de los ciudadanos, según la naturaleza de los bienes y de acuerdo con los principios de libertad individual y respeto a las demás personas.

2. Las actividades que se desarrollan en la vía pública no pueden limitar el derecho de los demás al uso general, excepto en el caso de que se disponga de licencia o concesión para el uso común especial o el uso privativo.

EK\CV GAO-I-2019-00997

3. Alkatetza-Lehendakaritzari dagokio bide publikoan garatzen diren erabilera eta jarduerak zehaztu eta harmonizatzea, eta lehentasuna ematea interes publikorako lehentasunezkoak direnei. Eragin horretarako, debekatu egingo dira oztopoak edo bateraezintasunak sortzen dituzten jarduerak.

4. Izaera orokorren erabilera komunek lehentasuna izango dute bestelako erabileren aurrean, baina ahalegina egingo da azken horiek bateratzen, interes pribatuei begira, nahitaezkoak direnean eta ez diotenean interes publikoari kalte handirik sortzen.

*4. artikulua. Erabilitako kontzeptuen terminologia.*

Ordenantza honetan erabilitako kontzeptuen terminologia hau da:

1. Bide publikoa. Ordenantza honen eraginetarako, bide publikoa dira hiritarren erabilera komunerako kale, plaza, zirkulazio bide, ibilbide, etorbide, espaloi, bulebar, parke eta lorategi eremu, bide tunel eta gainerako ondasun publiko nahiz pribatuak. Era berean, arau honen aurreikuspenak aplikagarriak izango dira hiritartu gabeko udal jabetzako eremuetan eta Udalak kudeatutako bestelako eremu publikoetan, Udal Erakunde Autonomoetan eta Mendeko Erakundeetan.

2. Hiri altzariak. Izen hori ematen zaie Udalak eta bere zerbitzu publikoek bide publikoan ezarritako zuhaitzei, eserlekuei, paperontziei, jokoei, iturriei, farolei, seinaleztapenei, hondakinetarako edukiontziei, estatuei, eskulturei, loreontziei, kioskoei, markesinei, eta gainerako osagaiei.

3. hondakinak. Hondakintzat hartzen da uztailaren 28ko Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak aipatzen duen edozein gai, materia edo produktu, haren jabea hartaz gabetzen bada edo gabetu behar badu.

Hiri hondakintzat hartuko dira etxeko, establezimenduetako, bulegoetako eta zerbitzuetako nahiz haien izaera edo osagaiengatik etxeko hondakinen antza duten hondakinak.

4. Tresna arriskutsuak. Ordenantza honen eraginetarako arriskutsutzat joko dira tresna zorrotzak, mingarriak, eta haien izaeragatik edo ezaugarriengatik hiritarren osotasun fisikoan kaltea sor lezaketen tresnak, baita egoera berezietan edo aldi bateko egoeretan eramaten diren lanbide nahiz kirol arloko tresnak, ez bazaie esleitu zitzaien erabilera ematen. Adibidez, honakoak: Mailuak, mazoak, beisbol bateak, arte martzialetan edo harreman fisikoko kiroletan erabiltzen diren objektuak, armak, kateak, metalezko barrak, pioletak, etab.

5. Eskekotasuna. Ordenantza honen eraginetarako, eskekotasuntzat joko da bide publikoan limosna eskatzea.

6. Panfletoak. Kartelak ez diren propaganda inprimatu mota guztiak: eskuorriak, pegatinak, triptikoak, etab.

7. Establezimendua. Eragin horietarako, establezimendua zera izango da, aldez aurretik udal baimena behar duten jarduerak garatzeko lokala.

8. Obrak. Obrak izango dira eraiste, hiritartze, eraikitze, birgaitze eta berritze lanak, lur mugimenduak, zangak, kanalizazioak eta antzeko bestelako lanak.

9. Kartelak. Izen hori ematen zaie higiezin publiko edo pribatuetan, zuhaitzetan edo hiri altzarietan jartzeko euskarrian doazen edozein motatako propagandei: paskinei, kartelei, pankartei, banderatxoei, eta abarri.

10. Pintadak. Pintadatzat hartuko dira bide publikoan, zoladuren gainean eta eraikinetako edozein murru edo hormaren gainean, edo egiturazko edozein osagairen edo hiri altzarien

3. Corresponde a la Alcaldía-Presidencia determinar y armonizar los usos y actividades que se desarrollen en la vía pública, dando preferencia a aquellos que en cada momento sean prioritarios para el interés público. A este efecto, se prohibirán o restringirán temporalmente aquellas actividades de las que se deriven inconvenientes o incompatibilidades.

4. Los usos comunes de carácter general tendrán preferencia sobre otro tipo de usos, si bien se procurará armonizar y hacer posible estos últimos cuando sean indispensables para el mantenimiento de los intereses privados y no comporten grandes perjuicios al interés público.

*Artículo 4. Terminología de conceptos utilizados.*

La terminología de los conceptos utilizados en esta Ordenanza es la siguiente:

1. Vía pública. A efectos de la presente Ordenanza, se consideran vía pública las calles, plazas, vías de circulación, los paseos, avenidas, aceras, bulevares, parques y zonas ajardinadas, túneles viarios y demás bienes de uso público o privado destinados al uso común general de los ciudadanos. Asimismo, las previsiones de esta norma serán de aplicación en zonas de propiedad municipal no urbanizadas y otros espacios públicos gestionados por el Ayuntamiento, Organismos Autónomos Municipales y Entes Dependientes.

2. Mobiliario urbano. Se incluyen en esta denominación los árboles, bancos, papeleras, juegos, fuentes, farolas, señalizaciones, contenedores de residuos, estatuas, esculturas, jardineras, quioscos, marquesinas y demás elementos colocados por el Ayuntamiento y sus servicios en las vías públicas.

3. Residuos. Se entiende por residuo cualquier sustancia, materia o producto incluido en alguna de las categorías de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, y de la que su poseedor se desprende o tiene la intención o la obligación de desprenderse.

Los residuos domésticos, los de comercios, de oficinas y servicios, así como aquellos otros residuos que por su naturaleza o composición puedan asimilarse a los residuos domésticos, tendrán la consideración de residuos urbanos.

4. Instrumentos peligrosos. A los efectos de la presente Ordenanza, tendrán la consideración de peligrosos todos los instrumentos cortantes, contundentes y aquellos que por su naturaleza y características sean susceptibles de causar menoscabo a la integridad física de los ciudadanos, inclusive aquellos objetos propios de los ámbitos profesionales o deportivos que se porten en circunstancias especiales y temporales que no correspondan con la utilización para los que fueran concebidos. A título meramente enunciativo se citan los siguientes: martillos, mazas, bates de béisbol, objetos empleados en artes marciales o en deportes de contacto físico, armas, cadenas, barras de metal, piolets, etc.

5. Mendicidad. A los efectos de esta Ordenanza, se considera mendicidad pedir limosna en la vía pública.

6. Octavillas. Todo tipo de propaganda impresa no incluida entre los carteles: folletos, pegatinas, trípticos, etc.

7. Establecimiento. A los indicados efectos, se entiende por establecimiento todo local destinado a desarrollar actividades sujetas a previa licencia municipal.

8. Obras. Se entenderán por tales las obras de derribo, de urbanización, de construcción, rehabilitación, reforma, movimiento de tierras, zanjas, canalizaciones y cualesquiera otras análogas.

9. Carteles. Se incluyen en esta denominación toda clase de propaganda en soporte apto para su colocación en inmuebles públicos o privados, arbolado o mobiliario público: pasquines, carteles, pancartas, banderolas, etc.

10. Pintadas. Se entenderán por tales las inscripciones manuales o de cualquier tipo realizadas en la vía pública, sobre pavimentos y toda clase de muros o paredes de los edificios, o

EK\CV GAO-I-2019-00997

gainean egindako esku-inskripzioak nahiz bestelako inskripzioak. Horien artean sartuta daude kristaletan, altzarietan eta bide publikoan oro har egindako arrastoak.

*5. artikulua. Lizentziak eta baimenak.*

1. Obretarako udal baimenen kasuan eta Ordenantza honetan aurreikusitako lizentzien eta baimenen kasuan fidantza bat jarri ahal izango da herri garbitasun eta apainketari dagozkion betebeharrei erantzuteko.

2. Azken horiek beti epe jakin baterako emango dira, eta baliogabetu ahal izango dira epea amaitu baino lehen.

II. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOEN IZENDAPENA ETA ERROTULAZIOA

*6. artikulua. Bide publikoen izena.*

Bide publikoek izen bat izango dute, nork berea, eta izen hori Udalbatzak onartua izango da.

*7. artikulua. Bide publikoetako errotulazioa eta apainketak.*

1. Bide publikoetako errotulazioak zerbitzu publiko izaera du, eta plaka, zutoin edo antzeko zerbaiten bidez egin daiteke: euskarri hori aise ikusten den tokian jarriko da, gutxienez bide publiko bakoitzaren sarreran eta irteeran. Plazen kasuan eraikin nagusian eta plazaren sarbide nagusietan jarriko da.

2. Bide publikoetako errotulazio hori higiezin pribatuetako fatxadetan egin ahal izango da, eta higiezin horien jabeek horiek jartzeko beharrezkoak diren lanak bideratuko dituzte.

Era berean, higiezinen jabeek erraztasunak emango dituzte Jai Nagusietako eta Gabonetako argi, bandera eta apaingarriak instalatzeko beharrezko ainguraketak fatxadetan jartzeko.

I. TITULUA

JOKABIDE ZIBIKOA BIDE PUBLIKOA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*8. artikulua. Bide publikorako portaera arau orokorrak.*

1. Hiritarrek eskubidea dute hiriko bide eta eremu publikoak modu librean erabiltzeko, eta errespetatu egin behar da haien askatasuna. Eskubide hori errespetuz erabili behar da, eta mugatuta dago, ondasun publikoen erabilerari buruzko xedapenak direla eta eta gainerako pertsonei eta ondasun pribatuei zor zaien errespetua dela eta.

Arau-haustea izango da segurtasun kolektiboa asaldatzea edo desordena sortzea bide publikoetan, edo eremu nahiz establezimendu publikoetan, betiere arau-hauste penala ez den kasuetan.

2. Inork ezin ditu, bide publikoan duen portaerarekin, gainerako pertsonen eskubideak gutxietsi, haiek ekiteko duten askatasuna mespretxatu, eta oro har onartuak diren uste sendoak eta bizikidetza jarraibideak arbuiatu. Ez da zilegi inor arraz edo erlijioa dela eta diskriminatzea.

3. Ez da zilegi bizilagunen atsedena apurtzen duen zaratarik sortzea, ezta gaueko zalapartetan parte hartzea edo gaueko aisialdi lokaletatik zarata eginez ateratzea.

4. Motordun ibilgailuek sortutako zaratei dagokienez, gai horretan indarrean dagoen Araudia bete beharko da, horri buruzko arau-hauste eta balizko zehapenei dagozkienak barne.

5. Hiri hondakinak utzi eta erabiltzeari dagokionez, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateko Hiri Hondakinen Kudea-

sobre cualquiera de los elementos estructurales o del mobiliario urbano. Aquí se incluyen los actos de rayado de cristales en el mobiliario y vías públicas en general.

*Artículo 5. Licencias y autorizaciones.*

1. En las licencias municipales de obras y en las licencias y autorizaciones previstas en esta Ordenanza podrá imponerse la constitución de una fianza para responder de las obligaciones referentes a la limpieza y el ornato público.

2. Estas últimas se concederán siempre por un plazo determinado y podrán ser revocadas antes de que transcurra el mismo.

CAPÍTULO II. DENOMINACIÓN Y ROTULACIÓN DE LAS VÍAS PÚBLICAS

*Artículo 6. Denominación de las vías públicas.*

Las vías públicas se identificarán con un nombre, diferente para cada una de ellas, que ha de ser aprobado por el Ayuntamiento Pleno.

*Artículo 7. Rotulación y adornos de las vías públicas.*

1. La rotulación de las vías públicas tiene carácter de servicio público y podrá efectuarse mediante una placa, poste o similar, que se fijará en un lugar bien visible, como mínimo en la entrada y salida de cada vía pública. En las plazas será en el edificio más preeminente y en sus principales accesos.

2. Esta rotulación de las vías públicas podrá llevarse a cabo en las fachadas de los inmuebles privados, cuyos propietarios facilitarán las actuaciones necesarias para su colocación.

De igual manera, los propietarios de los inmuebles contribuirán a facilitar la colocación en las fachadas de los anclajes necesarios para la instalación de luces, banderas y adornos de Fiestas locales y de Navidad.

TÍTULO I

NORMAS DE CONVIVENCIA CIUDADANA EN EL ESPACIO PÚBLICO

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 8. Normas de comportamiento general en la vía pública.*

1. Los ciudadanos tienen derecho a utilizar libremente la vía y los espacios públicos de la ciudad y han de ser respetados en su libertad. Este derecho, que debe ser ejercido con respeto, está limitado por las disposiciones sobre el uso de los bienes públicos y por el deber de respetar a otras personas y a los bienes privados.

Constituirá infracción alterar la seguridad colectiva u originar desórdenes en las vías públicas, espacios o establecimientos públicos, cuando ello no constituya infracción penal.

2. Nadie puede, con su comportamiento en la vía pública, menospreciar los derechos de las demás personas, ni su libertad de acción, ni ofender las convicciones ni las pautas de convivencia generalmente admitidas. No está permitido discriminar a nadie por razón de raza o religión.

3. No está permitido provocar ruidos que perturben el descanso de los vecinos, ni participar en alborotos nocturnos, o salir ruidosamente de los locales de recreo nocturnos.

4. En lo referente a los ruidos provocados por vehículos de motor se estará a lo dispuesto en la Legislación Vigente en la materia, incluidas las infracciones y posibles sanciones al efecto.

5. En lo referente al depósito y tratamiento de residuos urbanos, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de

EK\CV GAO-I-2019-00997

keta Arautzen duen Ordenantzan ezarritakoa bete beharko da, horien artean gaiari buruzko arau-hauste eta balizko zehapenei dagozkienak.

6. Hiritarrek ezin izango dute bide publikoan abusuzko ekintzarik edo ekintza diskriminatzailerik egin, edo indarkeria fisikoa nahiz morala dakarren ekintzarik egin.

*9. artikulua. Solidaritatea bide publikoan.*

1. Udalak sustatu egingo du solidaritatea bide publikoan hiritarren artean, laguntza emateko beharrezkoa dutenei ibiltzeko nahiz orientatzeko, edo istripua izan dutenei edo arrisku egoeran daudenei laguntzeko. Gainera sustatu egingo da behar handiena duten pertsonei igarotzeko lehentasuna ematea edo hiri altzarien erabileran lehentasuna ematea, baita bestelako solidaritate eta heziketa jokaerak ere.

2. Edozein pertsonak, ume galduren bat, ezgaitasuna duen pertsonaren bat edo argi eta garbi anomalia fisiko edo psikiko egoeran dagoen pertsonaren bat aurkitzen badu, udaltzainei jakinaraziko die, eta haiek arduratuko dira babesteaz eta haren tutoretzaren ardura duen pertsonari itzultzeaz.

*10. artikulua. Ondasun publikoen erabilera.*

Ondasun publikoak haien izaeraren arabera erabili behar dira, egoki erabiliz eta gainerako hiritarrek haiek erabiltzeko duten eskubidea errespetatuz.

*11. artikulua. Udaltzainen eta zerbitzuen portaera.*

1. Udaltzainak eta zerbitzuetako kideak une oro modu egokian eta gizalegez arituko dira hiritarrekin, eta lagundu eta babestu egingo dituzte. Haien jardunetan informazio egokia emango dute haien esku-hartzeen arrazoi eta helburuei buruz.

2. Udaltzainek hiritarrei agindu eta jarraibide egokiak eman ahal izango dizkiete Ordenantza honetako zehaztapenak beteko direla bermatzeko.

Arau haustea izango da agintarien edo haien agenteen aginduak ez betetzea, Ordenantza honetan edo indarrean dagoen bestelako legedian ezarritakoa betez, betiere arau-hauste penala ez den kasuetan.

3. Kasu larrietan, eta 1. atalean ezarritakoaren arabera jokatu ondoren, pertsonen gainean aginte agindua erabili behar den kasuetan, nahitaezko indar ekintzak burutuko dira, eragindako pertsonen duintasuna erabat errespetatuz.

4. Lantegi, lokal edo establezimenduetako titular edo arduradunek sartzen utziko diete udal ikusketa zerbitzuei arauzko ikusketa edo kontrolak egiteko, Ordenatza honetan edo udal eskumeneko bestelako araudietan ezarritakoaren araberakoak direnan.

II. KAPITULUA. HIRITARREN BIZIKIDETZA

*12. artikulua. Hiri altzarien eta eremu publikoen babesa.*

1. Hiritar guztiek egoki erabili behar dituzte hirian dauden hiri altzariak, eta hala errespetatu eta egoki erabiliko dituzte haien kontserbazioa eta ohiko erabilera eragozteko moduko hondatzerik egin gabe.

2. Debekatuta daude hiri altzariak edo eremu publikoak zikintzen, kaltetzen edo kalte ditzaketen ekintzak, zehazki hauek:

a) Ez zaie eserlekuei haien berezko erabileraren aurkako erabilerarik emango, eta ez dira zapalduko edo dauden lekutik kenduko, ezta puskatu, zikindu, eta oro har haien erabilera kaltetzeko edo kontserbazioa hondatzeko moduan usatuko.

la Gestión de Residuos Urbanos de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, incluidas las infracciones y posibles sanciones en esta materia.

6. Todo ciudadano se abstendrá de realizar en la vía pública prácticas abusivas o discriminatorias, o que comporten violencia física o moral.

*Artículo 9. De la solidaridad en la vía pública.*

1. El Ayuntamiento estimulará la solidaridad entre los ciudadanos en la vía pública con el fin de prestar ayuda a las personas que así la necesiten para transitar u orientarse, que hayan padecido accidentes o se encuentren en circunstancias de riesgo. Se fomentará también la costumbre de ceder la preferencia en el paso o en el uso del mobiliario urbano a las personas que más lo necesiten, así como otras actitudes de solidaridad y educación.

2. Todas las personas que encuentren niños o personas discapacitadas extraviadas o personas en situación de evidente estado de anomalía física o psíquica deben ponerlo en conocimiento de los agentes de la autoridad, los cuales se harán cargo de su protección y restitución a los responsables de su tutela.

*Artículo 10. Uso de los bienes públicos.*

Los bienes públicos deben ser utilizados de acuerdo con su naturaleza, haciendo un buen uso de los mismos y respetando siempre el derecho que el resto de ciudadanos poseen también para su disfrute.

*Artículo 11. Comportamiento de los agentes de la autoridad y los servicios municipales.*

1. Los agentes de la autoridad y los miembros de los servicios municipales tratarán en todo momento con corrección y cortesía a los ciudadanos, a los que auxiliarán y protegerán. En sus intervenciones proporcionarán la información apropiada sobre las causas y finalidades de sus actuaciones.

2. Los agentes de la autoridad podrán dar a los ciudadanos las órdenes e instrucciones oportunas en orden a garantizar el cumplimiento de las determinaciones contenidas en la presente Ordenanza.

Constituirá infracción desobedecer los mandatos de la autoridad o de sus agentes, dictados en directa aplicación de lo dispuesto en la presente Ordenanza u otra legislación vigente, cuando no constituya infracción penal.

3. En los casos de gravedad y tras actuar conforme al apartado 1.º, en que sea necesario utilizar el mandato de autoridad sobre las personas, se llevarán a cabo los actos de fuerza estrictamente indispensables, con pleno respeto a la dignidad de las personas afectadas.

4. Los titulares o regentes de fábricas, locales o establecimientos, facilitarán a los servicios de inspección municipales el acceso a éstos para la realización de las inspecciones o controles reglamentarios, establecidos conforme a lo dispuesto en la presente Ordenanza u otras normativas de competencia municipal.

CAPÍTULO II. CONVIVENCIA CIUDADANA

*Artículo 12. Protección del mobiliario urbano y de los espacios públicos.*

1. Es obligación de todos los ciudadanos hacer un buen uso del mobiliario urbano existente en la ciudad, debiendo éste ser respetado y utilizado de tal forma que no sufra deterioro que impida su normal conservación y uso.

2. No están permitidas las acciones que ensucien, produzcan daños o sean susceptibles de producirlos en el mobiliario urbano y espacios públicos y, en concreto, los siguientes actos:

a) El uso de bancos de forma contraria a su natural utilización, no debiendo ser pisoteados, ni arrancados del lugar en que estén colocados, ni rotos, ni manchados y, en general, todo aquello que perjudique su uso o deteriore su conservación.


EK\CV GAO-I-2019-00997

b) Debekatuta dago jokoak kaltetzeko edo hondatzeko moduan erabiltzea, baita helduek edo jokoan adierazitakotik gorako adina duten adingabeek erabiltzea ere. Joko bakoitzak jokoa erabiltzeko adin egokia adierazten duen plaka bat izango du.

d) Ez dago baimenduta iturri publikoetako hoditeriak, iturriak eta gainerako osagaiak manipulatzea, ohiko funtzionamenduari ez dagozkion kasuetan.

Iturri apaingarrietan eta urmaeletan ez dago baimenduta haiek zikintzea, baita haien ura garbitzeko, bainatzeko edo barruan sartzeko erabiltzea, eta edozein motatako detergente, koloragarri, edo usain txar edo oro har eragozpenak sortzen duen substantzia edo produktu kimikorik botatzea.

e) Debekatuta dago zuhaitzak, farolak, estatuak, monumentuak, seinaleak, kale-adierazgarriak eta hirian dauden gainerako osagai apaingarriak kaltetzen duen ekintzarik edo manipulaziorik egitea, baita horiek hondatzen duten ekintzak egitea ere.

f) Debekatuta dago su egitea eta inausketaren hondarrak, obrako materiala eta Hiri Guneko bestelako gai eta objektuak erretzea, bereziki Aireportutik, errepideetatik eta etxebizitzetatik hurbil.

Udal barrutiko gainerako eremuetan erretzen direnean, Aldundiko dagozkion zerbitzuen esanetara egongo da. San Juan suek udal baimena beharko dute.

g) Ez dago baimenduta lurzoru publikoan barbakoak erabiltzea. Hirigunearen barnean barbakoen erabilera mugatua egongo da, bai arriskugarritasunagatik, eta bai gainerako hiritarrei edo dauden berariazko arauei eragozpenak sortzeagatik.

h) Debekatuta dago animaliei bide publikoko gizakien kontsumorako iturrietatik zuzenean edaten uztea.

i) Debekatuta dago bide publikora usain gogaikarria sortzen duenik botatzea.

*13. artikulua. Debeku bereziak.*

1. Ez dago baimenduta bide publikoan kirol edo joko jarduerak burutzea, pertsona edo ondasunei kalteak edo hiritarrei eragozpenak eragiteko moduko objektuak edo tresnak erabiltzen badira, salbu eta horretarako baimendutako leku eta eremuetan eta baimendutako ordutegietan egiten bada. Plazetan jokoan edo jolasean ibil daitekeen lekuak zehaztuko dira, horrelakorik egin badaiteke bederen.

Azalpen gisa, esango genuke, ez dagoela baimenduta dagoela kale eta plazetan pertsonei eta jabetza pribatuei arrisku edo kalte nabarmenak eragin diezazkieketen baloi, disko hegalari, boomerang, monopatin, beste gailu irristakor eta abarrekin jolastea.

2. Debekaturik dago bide publikoan petardoak, bengalak edo antzeko objektu piroteknikoak erabiltzea.

Era berean debekatuta dago jaurtitzeko edozein tresna erabiltzea (arkuak, zerbatanak, tiragomak, bola pistolak).

3. Galarazita dago motozikletak eta ziklomotorrak oinezkoen plazetatik zirkulatzea, Zirkulazioko Araudi Orokorrak dioenaren arabera.

4. Ez dago baimenduta fatxadetatik aurrera ateratzen diren loreontziak eta abar jartzea, eraikineko berezko elementuek behar bezala eusten ez dietenean.

5. Debekatuta dago oinezkoei, ibilgailuei eta eraikin publiko nahiz pribatuei edozein motatako objektuak botatzea, besteak beste harriak, arrautzak, ur puxikak, eta antzekoak.

6. Bide erabiltzaile guztiek zirkulazio librea mugatzen duten debekuak eta seinale horien mezuak errespetatu beharko dituzte, eskumena duen udal organoak bide erabiltzai-

b) No está permitida la utilización de los aparatos de juegos de forma indebida que los puedan dañar o destruir, así como la utilización de los aparatos de juegos infantiles por los adultos o por menores de edad superior a la indicada en el juego. Cada juego contendrá una placa que indique la edad adecuada de uso del juego.

d) No está permitida la manipulación en cañerías, grifos y demás elementos de las fuentes públicas que no sean propias de su funcionamiento normal.

No está permitido ensuciar las fuentes decorativas, utilizar el agua de las mismas para limpiar, bañarse o introducirse en sus aguas, así como arrojar cualquier tipo de detergente, colorante, sustancia que genere mal olor o molestias en general así como productos químicos.

e) No está permitida cualquier acción o manipulación que perjudique a los árboles, farolas, estatuas, monumentos, señales, señales indicativas de calles y demás elementos decorativos existentes en la ciudad, así como cualquier acto que deteriore los mismos.

f) No está permitido hacer fuego y quemar restos de poda, material de obra y otros enseres y objetos en el Casco Urbano, en especial en las proximidades del Aeropuerto, las carreteras y viviendas.

En las quemas en el resto del término municipal, se estará a lo dispuesto por los servicios correspondientes de la Diputación. Las hogueras de San Juan requerirán autorización municipal.

g) No está permitida la utilización de barbacoas en suelo público. Dentro del casco urbano, estará limitada por la peligrosidad o molestias que puedan generar al resto de ciudadanos o a las normas específicas existentes.

h) No está permitido que los animales beban directamente de las fuentes situadas en la vía pública y destinadas al consumo humano.

i) No está permitido verter o arrojar a la vía pública cualquier sustancia que genere deterioro, malos olores, deslizamientos y molestias en general.

*Artículo 13. Prohibiciones específicas.*

1. No está permitida la práctica en la vía pública de actividades deportivas o lúdicas en las que se utilicen objetos o instrumentos que pueden causar daños a las personas o bienes, o molestias a la ciudadanía, salvo en los lugares y en las zonas autorizadas para ello y en los horarios autorizados. En las plazas se indicarán las zonas en las que pueda practicarse el juego, siempre que ello sea posible.

A nivel general no está permitido jugar en calles y plazas con balones, discos voladores, boomerangs, monopatines, y otros elementos deslizantes etc. que entrañen riesgos o molestias notables para personas y propiedades privadas.

2. Tampoco se pueden utilizar en la vía pública petardos, bengalas y objetos pirotécnicos análogos.

También se prohíbe cualquier instrumento que proyecte cualquier tipo de objeto, tales como arcos, cerbatanas, tiragomas y pistolas lanzabolas.

3. No está permitida la circulación en motocicletas y ciclomotores por las calles, plazas peatonales y aceras, según establece el Reglamento General de Circulación.

4. No está permitida la colocación de jardineras, macetas, etc. que sobresalgan de las fachadas y que no estén debidamente soportadas por los propios elementos del edificio.

5. No está permitido arrojar cualquier tipo de objeto tales como piedras, huevos, globos de agua y similares, a los peatones, vehículos y edificios públicos o privados.

6. Todo usuario de la vía deberá respetar aquellas restricciones a la libre circulación así como respetar los mensajes de dichas señales en aquellos casos en los que el órgano municipal

EK\CV GAO-I-2019-00997

leen segurtasuna zaintzeko, kirol nahiz kultur ekimenetarako, ordena publikorako edo larrialdi egoeretarako osagaiak jartzen dituenean.

7. Hiritar guztiek bizilagunen atsedenaldia errespetatu behar dute, eta ez dute ohiko bizikidetza aldatzeko moduko zaratarik egin behar.

Bizilagunen arteko zarata eragozpenak (etxebizitzen artean gertatzen direnak) juridikoki araututa daude Jabetza Horizontalaren Legean, nahiz eta ohikoagoak diren zenbait alderdi Ordenantza honetan ematen diren modu orokorrean, hala kasu horietan gertatzen den kutsadura akustikoa muga onargarrien barruan egoteko, tokiko erabilerekin bat etorriz.

Arrazoi horregatik, honako prebentzio hauek zehazten dira, 22:00etatik 8:00ak arteko ordutegiari eta harrera puntuan 30 dBA-ko (LpAfmax) soinu mugari dagozkionak, guztiak ere:

a) Etxe partikularren barnean eta eskaileretan, patioetan eta, oro har, etxebizitzetako erabilera komunitarioko espazioetan ezin da ozenegi abestu edo hitz egin gaueko 0:00etatik goizeko 7:00ak bitarte.

b) Ezin dira ateak eta leihoak zalapartan itxi, bereziki arestian aipaturiko ordutegi horretan.

c) Ez dago baimenduta obrak egitea bizitegi-eraikinen eta etxebizitzen barruan 8:00etatik 21:00ak bitarteko ordutegitik kanpo, salbu eta premiazkoak diren obrak eta beren ezaugarriengatik egunez egiterik ez direnak, eta horiek, edonola ere, espresuki Udalaren baimena beharko dute.

d) Etxe barruan ezin da beste edozein moduko zaratarik egin –bereziki gaueko 22:00etatik goizeko 8:00ak arteko ordutegian– etxean konponketa material edo mekanikoak, nahiz altzari edo etxetresna elektrikoen aldaketak egin behar direnean edo beste edozein gauza egiterakoan. Nolanahi ere, horiek ezin izango dituzte 30 dB-ak gainditu harrera puntuan.

e) Auzokoek ezin izango dute, gaueko 22:00etatik goizeko 7:00ak arte, patio, terraza, galeria, balkoi eta beste espazio itxi eta irekietan, beren soinu, oihu edo kantuekin aldamenekoen atsedena hauts dezakeen animaliarik utzi.

Edozein ordutan beren jabe edo arduradunek erretiratu egin beharko dituzte eraikineko gainerako biztanleei edo ondoko eraikinetakoei, modu nabarmenean, eragozpenak sortzen dizkietenean.

f) Lagunak biltzeko erabiltzen diren lokal, garaje, behe solairu, ganbara eta txapitulei dagokienez, udal baimena eduki arren, debekatu egiten da bizilagunei eragozpenak sortzea. Horien ondorioz, Udalak itxi eta klausuratzea agindu ahal izango du baimendutakoaren desberdina den erabilera emateagatik.

*14. artikulua. Parkeak, lorategi publikoak, belardiak eta kirol guneak babestea.*

1. Herritarrek nahitaezkoa dute hiriko parke eta lorategi publikoak nahiz kirol guneak errespetatzea.

2. Parke, lorategi eta loreontzietako landareak eta bide publikoetako zuhaitzak behar bezala zaintzeko, debekaturik daude honako hauek:

a) Landareak lapurtzea.

b) Belarra eta landarea hondatzea eta belarretan kanpatzea, zuhaitzetara igotzea.

c) Zuhaitzak moztea, bakantzea edo apurtzea.

competente coloque elementos para preservar la seguridad de los propios usuarios de las vías, celebración de actos deportivos, culturales, de orden público o en situaciones de emergencia.

7. Todos los ciudadanos están obligados a respetar el descanso de los vecinos y a evitar la producción de ruidos domésticos que alteren la normal convivencia.

Las molestias por ruidos de convivencia vecinal entre viviendas, encuentran su regulación jurídica en la Ley de Propiedad Horizontal, aunque algunos aspectos más comunes se incluyen en el ámbito de aplicación de la presente Ordenanza en forma generalista, de manera que la contaminación acústica producida en estos casos se mantenga dentro de los límites tolerables de conformidad con los usos locales.

Por este motivo, se establecen las prevenciones siguientes, todas ellas referidas al horario comprendido entre las 22 y las 8 horas y a un límite sonoro de 30 dBA (LpAfmax) en el punto de recepción:

a) No está permitido cantar o hablar en un tono excesivamente alto en el interior de los domicilios particulares y en las escaleras, patios y en general cualquier espacio de uso comunitario de las viviendas, desde las 0,00 horas de la noche hasta las 7 horas de la mañana.

b) No está permitido cerrar puertas y ventanas estrepitosamente, especialmente en el periodo señalado anteriormente.

c) No está permitido realizar obras en el interior de los edificios residenciales y en el interior de las viviendas fuera del horario comprendido entre las 8:00 y las 21:00 horas; a excepción de las urgentes y las que por sus características no puedan realizarse en horario diurno, que deberán en todo caso ser expresamente autorizadas por el Ayuntamiento.

d) No está permitido cualquier otro tipo de ruido que se pueda evitar en el interior de las casas, en especial en el periodo de tiempo comprendido desde las 22 horas hasta las 8 horas, producido por reparaciones materiales o mecánicas de carácter doméstico, cambio de muebles, aparatos electrodomésticos u otras causas, que en cualquier caso no deberán superar los 30 dB en el punto de recepción.

e) Los vecinos procurarán, desde las 10 horas de la noche hasta las 7 horas de la mañana, no dejar en los patios, terrazas, galerías, balcones u otros espacios abiertos o cerrados, animales que con sus sonidos, gritos o cantos perturben el descanso de los vecinos.

Estos animales, a cualquier hora del día, deberán ser retirados por sus propietarios o encargados cuando, de manera evidente, ocasionen molestias a los otros ocupantes del edificio o de los edificios vecinos.

f) Se prohíbe generar molestias a los vecinos con motivo de la utilización de locales, garajes, bajeras, áticos y buhardillas como locales de ocio o de reunión, a pesar de que cuenten con autorización municipal. El Ayuntamiento podrá ordenar el cierre y clausura de ellos por una utilización diferente a la autorizada.

*Artículo 14. Protección de parques, jardines públicos, parterres y zonas deportivas.*

1. Es obligación de los ciudadanos respetar los parques, jardines públicos y zonas deportivas de la ciudad.

2. Para la buena conservación y mantenimiento de las diferentes especies vegetales de parques, jardines, jardineras y árboles plantados en la vía pública, quedan prohibidos los siguientes actos:

a) La sustracción de plantas.

b) Dañar el césped y plantaciones o acampar. Subirse a los árboles.

c) Talar, podar, romper árboles.

EK\CV GAO-I-2019-00997

d) Zuhaitzen enbor-azalak markatu edo margotzea, enbor azalean puntak sartzea, zuhaitzei eskailerak, tresnak, edo aldamio euskarriak lotzea eta kartelak jartzea.

e) Aldi baterako bada ere, obra materiala pilatzea edozein zuhaitzen gainean edo haietan edozein produktu toxiko isurtzea.

f) Berdeguneetan zaborra, hondakinak, harriak, legarra edo berdeguneak kaltetu dezakeen edo haien estetika eta erabilera ona kaltetu dezakeen edozein produktu botatzea.

g) Gorotza uztea belardien eta lorategien gainean.

h) Sua piztea parke eta lorategietan.

i) Edozein ibilgailurekin zirkulatzea. Era berean debekatuta dago horiek aparkatzea. Debeku honetatik kanpo geratzen dira lorezaintza zerbitzuetarako eta zaintzarako direnak. Bizikletak jolaserako erabili ahalko dituzte 12 urtetik beherakoek, betiere jende kopuruak horretarako bidea ematen badu eta eragozpenik sortzen ez badute.

j) Argiteria, hesiak edo segurtasun kamerak kaltetzea.

3. Era berean debekatuta dago ordutegi arautua duten parkeen barruan egotea itxiera ordua eta gero.

*15. artikulua. Droga eta edari alkoholdunen kontsumoa.*

1. Drogak kontsumitzeari dagokionez, indarrean dagoen legedia aplikatuko da.

2. Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu drogak eta substantzia estupefazienteak edo psikotropikoak.

3. Debekatu egiten bide publikoan edari alkoholikoak saltzea, kasu hauetan izan ezik: Terrazetan edo beirateetan, azoka egunetan, jai nagusietan edo ekitaldi berezietan, eta betiere dagokion udal baimena izanda.

4. Debekatuta dago edariak kontsumitzea publikoak diren leku, bide, establezimendu edo garraiobidetan, horrek eragozpenak sortzen baditu edo hiritarrek eremu publikoetan gozatzea eragozten badu.

5. Debekatuta dago lokalen kanpoaldean edariak hartzea 22:00etatik aurrera, 15.3 puntuan aipaturiko kasuetan izan ezik. Horretarako, kontsumitzaile edo erabiltzaileek izan dezaketen erantzukizuna alde batera utzita, lokaletako titularrek, aipatutako ordutik aurrera, galarazi egin beharko dute bezeroek lokaletik kontsumizioak ateratzea.

6. 18 urtetik beherakoen kasuan, haiei edari alkoholikoak eman edo saltzea nahiz haiek kontsumitzea, bai saltokiei dagokienez eta bai kontsumitzen diren tokiei dagokienez.

Era berean, adingabeei edari alkoholdunak eman izanaren ardura izango dute, adin nagusikoak izanik, establezimendu eta komertzioetako arduradunen kontroletik ihes egiteko, edari alkoholdunak erosi eta adingabeei ematen dizkieten hirugarren pertsona guztiak.

Segurtasuna dela eta, biltzen diren ikuskizunetan (kontzertuetan eta antzekoetan), udalak baimenduta edari alkoholikoak saltzeko baimena izanda ere, edariak plastikozko edalontzietan emango dira, eta ezin izango dira kristalezko edo beirazko edalontziak nahiz latak erabili.

7. Tabakoaren kontsumoari dagokionez, debekatuta dago Udal Bulegoetan erretzea, salbu eta aire zabalean daudenen kasuan.

*16. artikulua. Armak eta tresna arriskutsuak.*

1. Arma eta tresna arriskutsuak eraman eta erabiltzeari dagokionez bete egin behar da gaiari buruz indarrean dagoen legeria.

2. Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu arma eta tresna arriskutsuak.

d) Grabar o pintar sus cortezas, clavar puntas, atar a los mismos escaleras, herramientas, soportes de andamiaje y colocar carteles.

e) Acopiar, aun de forma transitoria, materiales de obra sobre cualquiera de los árboles o verter en ellos cualquier clase de productos tóxicos.

f) Arrojar en las zonas verdes basuras, residuos, piedras, grava o cualquier otro producto que puedan dañarlas o atentar a su estética y buen uso.

g) Dejar excrementos sobre el césped y jardines.

h) Encender fuegos u hogueras en los parques y jardines.

i) Circular con cualquier tipo de vehículo. Queda también prohibido su estacionamiento. Quedan exentos de esta prohibición los destinados a servicios y mantenimiento de jardinería. Se permitirá el uso recreativo de bicicletas cuyos usuarios sean menores de doce años, siempre que la afluencia de público lo permita y no causen molestias.

j) Dañar el alumbrado, el vallado o las cámaras de seguridad.

3. Queda igualmente prohibido permanecer en el interior de los parques con horario regulado, más allá del horario de cierre.

*Artículo 15. Consumo de drogas y bebidas alcohólicas. Armas e instrumentos peligrosos.*

1. En relación al consumo de drogas, se aplicará lo dispuesto en la legislación vigente en la materia.

2. La Guardia Municipal procederá al decomiso inmediato de las drogas y sustancias estupefacientes o psicotrópicas.

3. Se prohíbe la venta de bebidas alcohólicas en la vía pública, salvo en terrazas o veladores o durante los días de feria, fiestas patronales y eventos especiales; contando, en todo caso, con la correspondiente licencia municipal.

4. Se prohíbe el consumo de bebidas alcohólicas en lugares, vías, establecimientos o transportes públicos cuando perturbe gravemente la tranquilidad ciudadana.

5. Está prohibida la consumición de bebidas en el exterior de los locales a partir de las 22:00 h., salvo en los casos recogidos en el punto 15.3 de éste artículo. A estos efectos, los titulares de los locales impedirán a partir de la citada hora que los clientes saquen las consumiciones fuera del local.

6. El suministro, venta y consumo de bebidas alcohólicas a menores de 18 años, tanto en lugares de expedición, como en los de consumo.

Serán también responsables del suministro de bebidas alcohólicas a menores aquellas personas que siendo mayores de edad y que con el fin de eludir el control de los responsables de los comercios, adquieran personalmente las bebidas alcohólicas y posteriormente se las faciliten a menores.

Por razones de seguridad, en aquellos espectáculos multitudinarios como conciertos u otros eventos similares que cuenten con autorización municipal incluyendo la posibilidad de dispensar bebidas alcohólicas, éstas se servirán en vasos de plástico, no permitiéndose en ningún caso envases de cristal, vidrio o latas.

7. En lo referente al consumo de tabaco, se prohíbe fumar en todas las Dependencias Municipales, salvo las que se encuentren al aire libre.

*Artículo 16. Armas e instrumentos peligrosos.*

1. El portar y utilizar armas e instrumentos peligrosos se ajustará a las normas contenidas en la legislación vigente sobre la materia.

2. La Guardia Municipal procederá al decomiso inmediato de las armas e instrumentos peligrosos.

EK\CV GAO-I-2019-00997

*17. artikulua. Eskean jardutea.*

1. Debekatuta dago dirua edo eskupekoa eskatzea hitzez edo ekintzez behartuz, beldurraraziz edo kalte eginez. Debeku honek indar handiagoa izango du adingabeak badira eskean dabiltzanak, eta indarrean dagoen legediak adingabeen babesari buruz dioena bete beharko da.

Era berean ez dago baimendua gauzak edo zerbitzuak eskaintzea, besteak beste mukizapiak edo haizetakoen garbiketa.

2. Udaltzainek beharrezkoa duten pertsonei jakinaraziko diete gizarte zerbitzuak daudela, udalekoak nahiz bestelako erakundeenak, beharrezkoa duten sorospena eta laguntza eskatzeko, batez ere negu garaian.

*18. artikulua. Salmenta ibiltaria.*

1. Debekatuta dago bide publikoan edo establezimenduetan salmenta ibiltaria egitea, salbu eta ordenatza honetan berariaz araututa dauden kasuak; edonola ere, udal baimena beharko dute.

Salmenta ibiltaria zera izango da, merkatariek merkataritza establezimendu batetik kanpo egindakoa, hau da, eremu libreetan, berdeguneetan edo bide publikoan egindakoa, data edo leku aldagarrietan.

Salmenta ibiltariaren printzipio honen salbuespen gisa, eta Ordenantza honetan aurreikusitako salbuespenen kaltetan joan gabe, Udalak baimendu ahal izango du salmenta modalitate hau hitzarmenak eginez indarrean dagoen legediaren babesean eratutako elkarte, talde edo gobernuz kanpoko erakundeekin, gizarte interesa badute, eta betiere arauek zenbait gai edo produkturi buruz ezarritako debekuak kontuan hartuta.

Edonola ere, ez dago baimenduta araudiak debekatzen dituen produktuen salmenta ibiltaria egitea.

Bide publikoan aparkatuta dagoen edozein ibilgailu motatan egiten den salmenta ere salmenta ibiltaritzat joko da.

2. Salmenta ibiltaria postu edo instalazio desmuntagarrietan egingo da, eta bakarrik instalatu ahal izango da dagokion baimenak zehaztutako tokietan.

Salmenta ibiltariko postuak ezin izango dira eraikinetarako nahiz merkataritza edo industria establezimenduetarako sarreran jarri, ezta sarrera horiek edo oinezkoen joan-etorria oztopatzen duten lekuetan ere, edo haietako erakusleihoen aurrean ere, erakusleihoak ikustea oztopatzen dutenean.

3. Hondarribian dagoen tradizioa kontuan izanda, salmenta leku hauetan baimendu ahal izango da, salbuespen gisa eta aldi baterako, aurretik udal baimena izanda, eta Udalak arauz ezarriak dituen baldintzekin:

— Gaztainak, neguan; ogitartekoak, taloak eta edariak Hiri Giroa ekimenean; eta txurroak, txistorra eta ogitartekoak San Tomas jaietan eta Herriko Jai Nagusietan.

— Bertako baserrietako produktuak.

— Liburuak eta diskoak Liburuaren Azokan.

— Eskualdeko artisautza eta gastronomia produktuak kultur, gastronomia edo gizarte intereseko azoken babesean egiten direnean.

— Beste zenbait produktu, herriko jai nagusietan, auzoko jaietan edo garrantzi bereziko ekimenetan.

— Brokante azoka.

— Erroskilla salmenta Guadalupeko bederatziurrenetan.

*Artículo 17. Mendicidad.*

1. No está permitida la petición de dinero o limosna ejercida de forma coactiva, intimidatoria o molesta de palabra u obra. Esta prohibición tendrá especial incidencia cuando sea ejercida por menores de edad, debiéndose estar a lo que disponga la legislación vigente en materia de protección de menores.

Asimismo no está permitido el ofrecimiento de objetos o servicios tales como pañuelos o limpieza de parabrisas.

2. Los Agentes de la Autoridad informarán a las personas que lo necesiten de la existencia de los servicios sociales, municipales o de otras entidades, a fin de que puedan solicitar el socorro y ayuda necesarios, especialmente en época invernal.

*Artículo 18. Venta ambulante.*

1. Se prohíbe la venta ambulante de cualquier producto en la vía pública o en establecimientos, a excepción de los supuestos regulados expresamente en la presente ordenanza que además deberá contar con la debida autorización municipal.

Se considera venta ambulante, la realizada por comerciantes fuera de un establecimiento comercial permanente; en espacios libres, zonas verdes o en la vía pública, en lugares y fechas variables.

Como excepción al principio general de prohibición de venta ambulante, y sin perjuicio de las excepciones contempladas en la presente Ordenanza, el Ayuntamiento podrá autorizar esta modalidad de venta mediante la celebración de convenios con asociaciones, colectivos, instituciones no gubernamentales que constituidas al amparo de la legislación vigente, persigan fines de interés social, teniendo en cuenta las prohibiciones que las normas establecen sobre determinadas materias o productos.

En todo caso no está permitida la venta ambulante de aquellos productos cuya normativa reguladora así lo prohíba.

La venta en cualquier tipo de vehículo estacionado en la vía pública tendrá la misma consideración de venta ambulante.

2. La venta ambulante se realizará en puestos o instalaciones desmontables que sólo podrán instalarse en el lugar o lugares que especifique la correspondiente autorización.

Los puestos de venta ambulante no podrán situarse en accesos a edificios, a establecimientos comerciales e industriales, o en lugares que dificulten tales accesos o la circulación peatonal, ni delante de sus escaparates o exposiciones cuando dificulten la visión de los mismos.

3. Atendiendo a la tradición existente en Hondarribia, con excepción y temporalmente, previa autorización municipal, en lugares y número determinado por el Ayuntamiento y bajo las condiciones que determine reglamentariamente el mismo, podrá autorizarse la venta de:

— Castañas en invierno; bocadillos, talos y bebidas con motivo del Herri Giroa; y churros, txistorra y bocadillos en fiestas de Santo Tomás y Fiestas Patronales.

— Productos de caserío local.

— Libros y discos con motivo de la celebración de la Feria del Libro.

— Productos de artesanía y gastronomía regional que se realicen al amparo de ferias de carácter cultural, gastronómico o interés social.

— Otros productos, con motivo de fiestas patronales, de barrios o en eventos de especial transcendencia.

— Feria brocante.

— Venta de rosquillas en las Novenas de Guadalupe.

EK\CV GAO-I-2019-00997

II. TITULUA

ESPAZIO PUBLIKOAREN GARBIKETA

I. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA GARBITZEA OHIKO ERABILERARAKO

*19. artikulua. Udal Betebeharra.*

1. Udal zerbitzuek hiriko eremu publikoak garbitasun eta osasungarritasun egoeran edukitzeko ardura dute. Hartarako, Udalak, Txingudiko Zerbitzuen mankomunitatearen bidez, dagokion zerbitzu publikoa emango du beharrezkoa den intentsitatearekin, eta dagozkion behatze eta polizia eskumenak erabiliko ditu.

2. Udal zerbitzuek eta Udaltzainek une oro zainduko dute hiritarrek garbitasun betebeharrak betetzen dituztela, eta berehala sortutako kaltea konpontzea exijituko dute, dagokion salaketa jartzearen kaltetan joan gabe.

*20. artikulua. Hiritarren betebeharrak eta lankidetzak.*

1. Hiritar guztiek garbi eduki behar dute hiria oro har eta bertako eremu publikoak zehazki.

2. Elurteak izanez gero, finken jabeek, finka publikoak nahiz pribatuak izan, lagundu egingo dute espaloietako elurra eta izotza kentzen urik erabili gabe, fatxadaren luzeran eta gutxienez 1,50 metroko zabaleran, salbu eta espaloiaren zabalera txikiagoa denean; elurra espaloiaren ertzean utziko da, zuhaitzei eragin gabe eta estolda-zuloak eta estoldak oztopatu gabe.

*21. artikulua. Debeku bereziak.*

1. Ez dago baimenduta bide publikoa zikindu lezakeen edozein jarduera egitea, adibidez hauek:

— Ibilgailuak bide publikoan garbitu edo konpontzea, edo isuriak bide publikora edo ibilgu publikora joan daitezkeen beste edozein lekutan garbitu edo konpontzea.

— Edozein hondakin mota balkoietatik, terrazetatik edo leihoetatik bide publikora, eremu pribatuetara edo eremu komunitarioetara botatzea.

2. Panfletoak botaz gero, udal zerbitzuek garbitu egingo dute banaketa horrek eragindako hiri eremua, eta arduradunei egindako aparteko zerbitzuen kostua egotziko diete, baita dagozkien zehapenak jarri ere.

3. Fatxadetan loreontziak edo landareak bakarrik 22:00etatik 8:00etara ureztatu ahal izango dira. Lan horiek kalterik edo eragozpenik sortu gabe egingo dira.

4. Ez dago baimenduta alfonbrak, mahai-oihalak, erratzak eta antzekoak bide publikora astintzea.

Beste zenbait debekuri dagokienez (bide publikoan zaborra edo hondakinak manipulatu edo uztea eta animalia hilak uztea), Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatean Hiri hondakinen Kudeaketa Arautzen duen Ordenantzak dioena beteko da.

*22. artikulua. Behar fisiologikoak.*

1. Debekatuta dago bide publikoan behar fisiologikoak egitea, besteak beste kaka egitea, pixa egitea, txistua botatzea edo oka egitea.

2. Bereziki debekatuta dago aurreko jokaera jende asko biltzen den tokietan, adingabeak dabiltzan tokietan, edo estatua, monumentu edo eraikin katalogatuetan egiten denean.

TÍTULO II

LIMPIEZA DEL ESPACIO PÚBLICO

CAPÍTULO I. LIMPIEZA DE LA VÍA PÚBLICA POR SU USO NORMAL

*Artículo 19. Obligación municipal.*

1. Los servicios municipales tienen la responsabilidad de mantener los espacios públicos de la ciudad en condiciones de limpieza y salubridad. A este efecto, el Ayuntamiento, a través de la Mancomunidad de Servicios de Txingudi, prestará el servicio público correspondiente con la intensidad necesaria, y ejercerá las facultades de vigilancia y policía que le corresponden.

2. Los servicios municipales y los agentes de la Guardia Municipal deben velar en todo momento por el cumplimiento de las obligaciones de los ciudadanos en materia de limpieza, requiriendo la reparación inmediata de la afección causada, sin perjuicio de cursar la denuncia que corresponda.

*Artículo 20. Obligaciones y colaboraciones de los ciudadanos.*

1. Todo ciudadano está obligado a mantener limpia la ciudad en general y sus espacios públicos en particular.

2. En caso de nevadas, los propietarios de fincas urbanas, tanto públicas como privadas, deberán colaborar a limpiar de nieve y hielo las aceras, sin utilizar agua, en la longitud correspondiente a la fachada y en la anchura mínima de 1,50 metros, salvo cuando la anchura de la acera sea menor, depositando la nieve a lo largo del borde de la acera, sin afectar a los árboles ni obstaculizar los sumideros o alcantarillas.

*Artículo 21. Prohibiciones específicas.*

1. Se prohíbe realizar cualquier operación que pueda ensuciar la vía pública, como, por ejemplo:

— Lavar, limpiar o reparar vehículos en la vía pública o en cualquier lugar desde el que los residuos puedan verter a la vía o cauce público.

— Verter cualquier tipo de residuo desde balcones, terrazas o ventanas a la vía pública, espacios privados o comunitarios.

2. En caso de arrojar octavillas, los servicios municipales correspondientes procederán a limpiar el espacio urbano afectado por dicha distribución, imputando a los responsables el coste de los servicios extraordinarios prestados, sin perjuicio de las sanciones correspondientes.

3. El riego de tiestos, macetas o plantas en fachadas, sólo podrá realizarse entre las 22:00 y las 8:00 horas. Estas operaciones se realizarán de forma que no causen daño ni molestias.

4. No está permitido el sacudir alfombras, manteles, escobas y similares a la vía pública.

En lo que se refiere a otras prohibiciones relativas a la manipulación y depósito en la vía pública de desechos o residuos, así como al abandono de animales muertos, se estará a lo que determina la Ordenanza Reguladora de la Gestión de los residuos Urbanos en la Mancomunidad de Servicios de Txingudi.

*Artículo 22. Necesidades fisiológicas.*

1. No está permitido hacer necesidades fisiológicas como defecar, orinar, escupir o vomitar en vía pública.

2. Queda especialmente prohibida la conducta anterior cuando se realice en espacios de concurrida afluencia de personas, frecuentada por menores o cuando se haga en estatuas, monumentos o edificios catalogados.

EK\CV GAO-I-2019-00997

*23. artikulua. Hondakinak uztea.*

1. Hondakinak honela utziko dira: Zaborra itxita egongo da. Paper-kartoia, ontziak, beira eta organikoa bakoitza bere edukiontzian, eta inguruak zikindu gabe. Altzariak eta tresnak Garbigunera eraman behar dira lehenik. Hori ezin bada, edukiontzien ondoan jarriko dira hartarako finkatutako egunetan eta 22:00etatik aurrera.

2. Debekatuta dago zabor poltsetako eta bide publikoan dauden edukiontzietako zaborra bilatu eta ateratzea, baita obra hondakinak jasotzeko edukiontzietako hondakinak hartzea ere.

3. Ez da zilegi bide publikoan etxeko hondakinen poltsak uztea hartarako jarriak diren edukiontzietatik kanpo.

4. Ez dago baimenduta bide publikoan lorezaintzako hondakinak, zuhaitz mozketen hondakinak eta belar mozketen hondakinak uztea, berez Garbiguneko instalazioetan utzi behar baitira.

*24. artikulua. Paperontzien erabilera.*

1. Bolumen txikiko hondakin solidoak (besteak beste zigarro-mutxikin itzaliak, azalak, txikleak, paperak, poltsak, bilgarriak eta antzekoak) paperontzietan jarri behar dira, salbu eta material birziklagarriak badira, kasu horretan bide publikoan dauden gaikako edukiontziak erabiliko baitira.

Ez dago baimenduta hondakinak, pipak, txikleak edo paperak hartarako ezarritako paperontzietatik kanpo botatzea.

2. Debekatuta dago paperontzietan hondakin solidoa, zabor poltsak eta edozein materia piztu uztea.

3. Debekatuta dago paperontziak eta edukiontziak iraultzea edo bere tokitik kentzea, baita paperontzien itxura eta osotasuna hondatzen duten bestelako ekintzak egitea ere.

4. Ez dago baimenduta paperontzietan eta hiri hondakinak jasotzeko edukiontzietan tresnak edo objektu arriskutsuak botatzea.

Eragin horietarako arriskutsutzat joko dira pertsona, animalia edo animalia hondakinei kaltea sor liezaieketen tresna edo objektuak, estupefazienteak kontsumitzeko xiringa eta objektuak, osasungintzan erabiltzen diren materialak gaixotasunak kutsa balitzakete, eta mota guztietako droga toxikoak, estupefazienteak eta produktu kimiko, erradioaktibo, nahiz piroteknikoak, leherkariak, eta su eragileak.

*25. artikulua. Garbitasuna merkataritza eta industria jardueretatik hurbil.*

1. Merkataritza edo industri jardueraren batek inguruetan edo baimenduriko espazioetan (adibidez, terrazan) zikinkeria sortzen badu, establezimenduaren arduradunak erasandako bide publikoaren zati hori txukundu beharko du, baita emandako lizentziari aplikatu beharreko araubidearen ondoriozko obligazioak eta zuzentze neurriak abiarazi ere.

*26. artikulua. Merkataritza eta industria establezimenduak garbitzea.*

Erakusleiho, establezimendu, atari, salmenta puntu eta antzekoen garbiketa arreta handiz egingo da bide publikoa ez zikintzeko, eta bertan dabiltzanei eragozpenik ez sortzeko orduetan egingo da.

Garbiketa horretatik etorritako hondakinak ezin izango dira bide publikora isuri edo bota, eta dagokien edukiontzian botako dira. Likidoak badira, estolderian hurbilen dagoen hustubidera isuriko dira, baldin eta hondakin horiek azido, lixiba edo garbikari kontzentratuak ez badira eta ur inguru hartzailearen gaitasun biologikoa eta ezaugarriak alda ditzaketen beste produkturik ez badute.

*Artículo 23. Depósito de residuos.*

1. Los residuos deberán depositarse de la siguiente manera: la basura en bolsa cerrada. El papel-cartón, los envases, el vidrio y el orgánico cada uno dentro de su contenedor respectivo y sin ensuciar los alrededores. Los muebles y enseres se deben llevar al Garbigune en primer lugar. En caso de que no sea posible, se depositarán junto a los contenedores, los días fijados para ello y a partir de las 20:00 horas.

2. No está permitido rebuscar y extraer residuos depositados en las bolsas de basura y en los contenedores instalados en la vía pública, incluidos los destinados a recogida de desechos de obras.

3. No se permite el depósito en vía pública de bolsas con residuos domésticos fuera de los contenedores colocados a tal efecto.

4. No está permitido el depósito en la vía pública de restos de poda de jardinería, talas de árboles y cortes de hierba, debiendo depositarse en las instalaciones del Garbigune.

*Artículo 24. Uso de las papeleras.*

1. Los residuos sólidos de pequeño volumen, tales como colillas apagadas, cáscaras, chicles, papeles, bolsas, envoltorios y similares, deben depositarse en las papeleras, excepto si se trata de materiales reciclables, en cuyo caso se utilizarán los contenedores de recogida selectiva instalados en la vía pública.

No está permitido arrojar desperdicios, pipas, chicles o papeles fuera de las papeleras a tal fin establecidas.

2. No está permitido dejar en las papeleras residuos sólidos, bolsas de basura y cualquier materia encendida.

3. No está permitido volcar o arrancar las papeleras y contenedores, así como otros actos que deterioren su aspecto e integridad.

4. No está permitido arrojar instrumentos u objetos peligrosos en las papeleras y contenedores destinados a los residuos urbanos.

A estos efectos, se considerarán instrumentos u objetos peligrosos todos aquellos susceptibles de generar daños a las personas, tales como animales y restos de animales, jeringuillas y útiles para el consumo de sustancias estupefacientes, materiales utilizados en la atención sanitaria que puedan ser susceptibles de contagiar o propagar enfermedades, así como todo tipo de drogas tóxicas, estupefacientes y productos químicos, radioactivos, pirotécnicos, explosivos o incendiarios.

*Artículo 25. Limpieza en la proximidad a las actividades comerciales e industriales.*

Cuando una actividad comercial o industrial genere suciedad frecuente en sus proximidades, o en el espacio autorizado en caso de terrazas, el titular del establecimiento deberá mantener limpia la parte de vía pública afectada, sin perjuicio de las medidas correctoras y demás obligaciones derivadas del régimen aplicable a las preceptivas licencias.

*Artículo 26. Limpieza de establecimientos comerciales e industriales.*

La limpieza de escaparates, establecimientos, portales, puntos de venta y similares, se hará con precaución para no ensuciar la vía pública, y se realizará en un horario que no cause molestias a los viandantes.

Los desechos derivados de dicha limpieza nunca deberán ser vertidos sobre la vía pública debiendo, en todo caso, verterlos en el contenedor correspondiente o, si son líquidos, en el sumidero más próximo del alcantarillado siempre y cuando dichos restos no incluyan ácidos, lejías, detergentes concentrados u otros productos que puedan alterar la capacidad biológica y características del medio acuático receptor.

EK\CV GAO-I-2019-00997

*27. artikulua. Toldoak eta pertsianak.*

Behe solairuko lokaletako toldo eta pertsianak kontserbazio eta garbitasun egoera onean mantenduko dira, eta haien itxura dela eta komeni denean kendu eta berriak jarriko dira.

*28. artikulua. Merkataritza establezimenduetako errotulu, plaka eta bestelako adierazgarriak.*

Bide publikoan errotulu, plaka eta ezaugarriak jartzeko, udal lizentzia eskatu behar da. Txukun egon behar dute, eta hondatuak ordezkatu egin behar dira.

Norabideen seinaleei dagokienez (trafikokoak, monumentuenak eta intereseko lekuenak, udal zerbitzuenak eta abar alde batera utzita), izaera publikoa edo erabilera publikoa duten zerbitzuei dagozkienak soilik jarri ahal izango dira (osasun establezimenduak, hotelak, aparkalekuak, posta, eta abar), betiere udalaren lizentzia edo baimena lortu ondoren, eta hartan zehazten diren kopuruak eta irizpideak kontuan harturik.

*29. artikulua. Pankartak, kartelak, banderatxoak eta itsasgarriak.*

Ez dago baimenduta horrelakoak bide publikoan jartzea nahiz egitura elementu, galtzada, espaloi, hiri altzari, eskailera, eskudel, horma eta trafiko seinaleetan jartzea, aurrez udal lizentzia edo baimena lortu gabe. Horrez gainera, jabearen baimena ere eduki beharko da.

*30. artikulua. Isurtzeak.*

Generoa soltean, edo edozein materia ontziratu gabe garraiatzen duten ibilgailuak bide publikora isurketarik ez egiteko moduan kargatu eta hornituko dira.

*31. artikulua. Karga eta deskarga lanen ondoriozko garbiketa.*

1. Edozein ibilgailuren karga eta deskargak egiterakoan, zikindutako espaloi eta galtzadak berehala garbituko dira lan horiek amaitu bezain laster.

2. Garbiketa horiek egiteko obligazioa dute (28 eta 29 art.) ibilgailuen jabeek eta, subsidiarioki, karga edo deskarga egin den establezimendu edo finkaren titularrek.

Arau orokor gisa, titularrek ez badute egiten, udal zerbitzuek egingo dute beharreko garbiketa, baina gastuak besteek ordainduko dituzte.

*32. artikulua. Animaliak eraman edo edukitzea. Gorotza.*

1. Hiritarrek behar bezala zainduko dituzte etxe animaliak, eta bereziki, debekatuta dago animalia horiek kalean abandonatzea.

2. Debekatuta dago edozein animaliak parke, pasealeku, lorategi edo bide publikoko beste edozein lekutan kaka egitea. Animalia horiek daramatzaten pertsonek ez diete utziko leku horietan kaka egiten.

3. Ezin izan bada gorotzak bide publikoan egitea galarazi, animaliaren jabeak edo animalia hori daraman pertsonak berehala jaso beharko ditu. Arau hori ez bada betetzen, animaliaren jabea izango da erantzulea, eta, subsidiarioki, une horretan daraman pertsona. Bietako bat ere ez bada azaltzen, dagokion udal zerbitzuak erretiratu egingo du animalia.

4. Animaliak ezin izango dira lorategietan eta parterreetan ibili; espres baimendutako parkeetan ibili ahal izango dira behar bezala kontrolatuak.

*33. artikulua. Animaliei buruz.*

1. Indarrean dagoen Animaliak Babestu eta Edukitzeko Udal Ordenantza beteko da une oro.

*Artículo 27. Toldos y persianas.*

Deberán mantenerse en buen estado de conservación y limpieza los toldos y persianas de los locales de planta baja y se repondrán cuando lo requiera su aspecto externo.

*Artículo 28. Rótulos, placas y demás distintivos en establecimientos comerciales.*

Cualquier rótulo, placa y distintivo hacia la vía pública está sujeto a licencia municipal. Habrán de mantenerse limpios y deberán reponerse los deteriorados.

Respecto a señales direccionales (dejando al margen las de tráfico, monumentos o lugares de interés, servicios municipales, etc.), sólo se podrán colocar las correspondientes a servicios de carácter público o de utilidad pública (establecimientos sanitarios, hoteles, parkings, correos, etc.), previa autorización municipal y en la cantidad y criterios que en ella se indiquen.

*Artículo 29. Pancartas, carteles, banderolas y adhesivos.*

No está permitida la instalación de cualquiera de estos elementos en la vía pública y cualquiera que sea su contenido; sobre elementos estructurales, calzadas, aceras, mobiliario urbano, escaleras, barandas, muros y paredes, señales de tráfico sin la previa autorización municipal y sin perjuicio de la necesidad de contar con el consentimiento del propietario.

*Artículo 30. Derramamiento.*

Los vehículos que transporten género a granel, o cualquier materia sin envasar, han de ir cargados y equipados de modo que se impidan derrames sobre la vía pública.

*Artículo 31. Limpieza relativa a la carga y descarga.*

1. En caso de operaciones de carga y descarga de cualquier vehículo, la limpieza de las aceras y calzadas que hubieran sido ensuciadas se realizará inmediatamente después de concluir esas tareas.

2. Están obligados a realizar dichas limpiezas (arts. 28 y 29), los dueños de los vehículos y, subsidiariamente, los titulares de los establecimientos o fincas en que haya sido efectuada la carga o descarga.

Como normal general, en el caso de que los titulares no lo hicieran, los servicios municipales procederán a efectuar la limpieza que corresponda, repercutiendo los costes.

*Artículo 32. Trato y conducción de los animales. Excrementos.*

1. Los ciudadanos deberán atender convenientemente a los animales domésticos y, en particular, queda prohibido el abandono de los mismos.

2. Se prohíbe que cualquier animal deposite sus deyecciones en parques, paseos, jardines o cualquier otro lugar de la vía pública. Las personas que los conduzcan impedirán que evacuen en ella sus excrementos.

3. En caso de no haber podido evitar que los excrementos se depositen en la vía pública, el propietario del animal o la persona que lo conduzca deberá inmediatamente recogerlos. Del incumplimiento será responsable la persona que lo conduzca y subsidiariamente el propietario del animal. Si no apareciera ninguno de los dos, será retirado el animal por el servicio municipal correspondiente.

4. Los animales no podrán invadir los jardines y parterres, pudiendo circular, debidamente controlados, por los parques donde expresamente se autorice.

*Artículo 33. Relativo a animales.*

1. Se cumplirá en todo momento con la Ordenanza Municipal para la Protección y Tenencia de Animales en vigor.



EK\CV GAO-I-2019-00997

II. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA ERABILERA ARRUNT BEREZIAREN, ERABILERA PRIBATIBOAREN ETA EKITALDI PUBLIKOEN ONDORIOZ

*34. artikulua. Erabilera berezi edo pribatiboak ukituriko eremuaren garbiketa.*

1. Erabilera arrunt berezi eta pribatiboaren ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabilera horien baimena duten edo esleipendunak diren pertsona fisiko edo juridikoen erantzukizuna izango da. Sortzen dituzten hondakinak bota edo edukitzeko ontzi homologatuak jartzeko eskatu ahal izango die Udalak, eta ontzi horiek ere garbitu egin beharko dituzte.

2. Terraza eta mahaien garbiketari dagokionean, garbiketa hori titularrek egin beharko dute ordubeteko epean, terraza ixten den unetik aurrera kontatuta. Dena dela, egun osoan zehar garbi eduki beharko dira, garbiketa eta higiene baldintza egokietan, eta horretarako, erratza pasako da eta garbiketa lanak egingo dira aldian behin.

*35. artikulua. Ekitaldi publikoak egitea.*

1. Jabetza publikoko espazioetan ekitaldi bat antolatzen duten antolatzaile pribatuek izango dute erantzukizuna ospakizun horretatik etorritako zikinkeriari dagokionez.

2. Hiriko garbitasunaren ondorioetarako, ekitaldi publikoen lekua, ibilbidea eta ordutegia Udalari jakinarazteko obligazioa dute antolatzaileek. Udalak fidantza bat jartzeko eskatu ahal izango die eragin ditzaketen garbiketa lan berezien arabera. Ukituriko espazio librea garbiketa baldintza egokietan baldin badago, itzuli egingo da fidantza hori. Bestela, hartatik kenduko da egin beharreko garbiketa lan berezi horien kostua.

3. Jende asko biltzen diren ekitaldi publikoetan, eta bertan elikagaiak nahiz edariak kontsumitzeko tabernak, txosnak edo antzekoak jartzen direnean, publikoari irekitako komunak izango dituzte bildutakoek, derrigorrezko baimenean zehaztutako kopuruan eta baldintzetan. Horrelakorik ezean, antolatzaileek komun eramangarri homologatuak jarriko dituzte, udal zerbitzu teknikoek zehaztutako kopuruan eta kokalekuetan.

4. Era berean, bide publikoan era horretako behin-behineko establezimenduak ezartzen direnean, aplikatu beharreko higiene-osasun baldintzak betetzeaz gainera, ur harguneak eta hustubideak jarriko dira saneamendu sarera, eta beharrezko neurriak hartuko dira hondakinak ohiko edukiontzietan uzteko gaika bilduta, gero birziklatu ahal izateko, edo zeregin horretarako espres jarritakoetan uzteko.

*36. artikulua. Jaialdiak animaliekin.*

Ekintza edo jaialdietan animaliak erabiltzen badira, sortzen duten zikinkeria garbitu beharko du antolatzaileak, ekitaldia bukatu eta animaliak erretiratu bezain laster.

*37. artikulua. Kanpatzea.*

1. Ezin izango da kanpatu, eta kanpin dendak edo horretarako egokituriko ibilgailuak jarri beharrezko baimenik edo lizentziarik ez duten Hiri Eremuko lurzoru publikoetan. Era berean, ezin izango da bide publikoan janaria prestatu edo aulkiak eta mahaiak jarri, horrelakorik eskatzen duen jardueren kasuan izan ezik, eta horretarako udal baimena lortu behar da derrigorrean.

Eremu Urbanizaezinean 396/2013 dekretuak, uztailaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kanpaketa-turismoko modalitate batzuk arautzeari buruzkoak dioena beteko da.

2. Udaltzainek bide publikoa okupatzen duten kanpin denden, ibilgailuen edo beste edozein eratako materialen jabeei edo erabiltzaileei jokabide hori zuzentzeko eskatuko diete, eta salaketa ere egin ahal izango dute. Ezezkoa emanez gero edo

CAPÍTULO II. DE LA LIMPIEZA COMO CONSECUENCIA DEL USO COMÚN ESPECIAL, DEL PRIVATIVO Y DE LOS ACTOS PÚBLICOS

*Artículo 34. Limpieza de la zona afectada por el uso especial o privativo.*

1. La suciedad de la vía pública ocasionada como consecuencia del uso común especial y del privativo, será responsabilidad de las personas físicas o jurídicas autorizadas o concesionarias de tales usos. El Ayuntamiento podrá exigirles la colocación de recipientes homologados para el depósito y retención de los residuos que generen, correspondiéndoles igualmente limpiar los recipientes.

2. Respecto a la limpieza de terrazas y veladores, deberá ser realizada por sus titulares en el plazo de una hora contada a partir del cierre de la misma, con independencia del mantenimiento permanente a lo largo del día, en las debidas condiciones de limpieza e higiene, mediante tareas de barrido y limpieza periódicas.

*Artículo 35. Celebración de actos públicos.*

1. Los organizadores privados de un acto en espacios de propiedad pública serán responsables de la suciedad derivada de su celebración.

2. A efectos de limpieza de la ciudad, los organizadores están obligados a informar al Ayuntamiento del lugar, recorrido y horario de los actos públicos. El Ayuntamiento podrá exigirles la constitución de una fianza en función de los previsibles trabajos extraordinarios de limpieza que pudieran ocasionar. De encontrarse el espacio público afectado en perfectas condiciones de limpieza, la fianza les será devuelta. En caso contrario, se deducirá de la misma el importe de los trabajos extraordinarios a realizar.

3. En los actos públicos donde se reúna un elevado número de asistentes y en los que se instalen bares, tabernas, txoznas o similares donde tenga lugar consumo de alimentos y/o bebidas, los congregados dispondrán de evacuatorios abiertos al público, en el número y condiciones que se indiquen en la preceptiva autorización. En su defecto, la organización instalará evacuatorios portátiles homologados, en la cantidad y ubicación indicada por los servicios técnicos municipales.

4. Asimismo, cuando se instalen en la vía pública este tipo de establecimientos provisionales, será necesario, además del cumplimiento de las medidas higiénico-sanitarias de aplicación, disponer de toma de agua y de evacuación a la red de saneamiento, así como adoptar las medidas oportunas para que los residuos se depositen en los contenedores habituales selectivamente para ulterior reciclaje, o en los expresamente instalados para el acto.

*Artículo 36. Festejos con animales.*

Cuando la celebración de actos o festejos incluya la utilización de animales, el organizador deberá eliminar la suciedad que provoquen, tan pronto termine el acto y los animales sean retirados.

*Artículo 37. Acampada.*

1. No se podrá acampar, instalar tiendas de campaña o vehículos a tal efecto habilitados en terrenos públicos en Zona Urbana, que carezcan de autorización para ello. De igual manera, no se podrá cocinar o desplegar sillas y mesas, salvo para actividades que lo requieran y previa autorización municipal.

En Zona No Urbanizable se cumplirá lo establecido en el decreto 396/2013 de 30 de julio, de ordenación de los campings y otras modalidades de turismo de acampada en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2. La Guardia Municipal requerirá a los propietarios o usuarios de las tiendas de campaña, vehículos, vehículos/vivienda o de cualquier tipo de material que ocupe indebidamente la vía pública, para que desistan de su actitud, sin perjui-

jabeak edo erabiltzaileak ezin badira aurkitu, Udaltzainek beharrezko bideak erabili ahal izango dituzte elementu horiek berehala erretiratzeko, eta sortutako gastuak jabeek ordainduko dituzte.

Titularrek ez badute egiten, udal zerbitzuek egingo dute beharrezko garbiketa, baina gastuak jabeek ordainduko dituzte.

III. KAPITULUA. EGITEN DIREN OBREI LOTURIKO BIDE PUBLIKOAREN GARBIKETA

*38. artikulua. Neurriak hartzea.*

1. Egiten diren jarduera eta obra guztiek, bide publikoa zikindu ez dadin beharreko neurriak hartzera behartzen dute titularra, dagozkion araubide baimen-emaileetan zehaztutako ekintzetatik etor litekeenari kalterik egin gabe. Era berean, obra horrek ukituriko eremua behar adina aldiz garbitzeko eta sorturiko hondar materialak erretiratzeko obligazioa izango du titularrak.

2. Udalak beharrezko garbiketa lanak egiteko eskatu ahal izango dio obraren arduradunari.

3. Eraikuntza, berritze edo eraiste lanak direnean, obraren sustatzailea izango da obra horiek ukituriko bide publikoaren garbiketaren erantzulea.

*39. artikulua. Obraren babesa.*

1. Zikinkeriarik ez biltzeko, bide publikoa ukitzen duten edo uki dezaketen lanak edo obrak egiten dituzten pertsonek obra hori babestu egin beharko dute inguruan elementu egokiak jarrita, obrako lurrak eta soberako materialak baimendutako eremutik edo obra mugatzen duen perimetrotik kanpora isuri eta zabaldu ez daitezen.

2. Ez dago baimenduta obraren perimetroaren barnean ez dagoen bide publikoan lurrak, hondarrak, legarrak eta gainerako materialak biltzea, baita eusteko eta induskatzeko elementu mekanikoak eta gainerako tresna lagungarriak pilatzea ere, espresuki udal lizentziarik edo baimenik izan ezean, eta eremu hori beti garbi eduki beharko da.

3. Lanegun bakoitza amaitzean, bide publikoan eginiko lan eremuak, zangak, kanalizazioak eta abar, garbi eta babestuak utziko dira eta beharreko seinaleak jarriko zaizkie istripurik gerta ez dadin, gauerako balizaje elementuak barne.

*40. artikulua. Ibilgailuak aldez aurretik garbitzea bide publikora ateratzerakoan.*

1. Obraren esparruan plataforma bat egokituko da, bertan garbitu ahal izateko, bide publikora atera aurretik, ibilgailuen gurpilak eta galtzada zikin dezaketen gainerako elementuak.

2. Prebentzio hori ez bada betetzen, dagokion zehapena jartzeaz gainera, obrako ibilgailu horiei bide publikora ateratzea debekatu egingo die Udaltzaingoak.

*41. artikulua. Masaderak.*

1. Bide publikotik hormigoia eramaterakoan garraiolariak ibilgailuak dituen baliabide guztiak jarriko ditu hormigoi hori bide publikora ez erortzeko.

2. Ez dago baimenduta masaderak bide publikoan eta horretarako egokia ez den beste edozein lekutan garbitzea.

3. Aurreko bi atal horiek ez badira betetzen, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzuleak, eta erantzule subsidiarioa, berriz, obraren sustatzailea edo zerbitzua ematen dioten jardueraren titularra. Isurtzen den hormigoia eta ukituriko bide publikoa garbitzeko obligazioa dute. Horrez gainera, dagozkien zehapenak jarri ahal izango zaizkie.

cio de efectuar la denuncia correspondiente. En caso de negativa, o de imposibilidad de localizar a los propietarios o usuarios, los Agentes de la Autoridad podrán articular los medios necesarios para la retirada inmediata de los mismos, corriendo los propietarios con los gastos que se originen.

En el caso de que los titulares no lo hicieran, los servicios municipales procederán a efectuar la limpieza que corresponda, repercutiendo los costes en aquellos.

CAPÍTULO III. DE LA LIMPIEZA DE LA VÍA PÚBLICA COMO CONSECUENCIA DE LA EJECUCIÓN DE OBRAS

*Artículo 38. Adopción de medidas.*

1. Todas las actividades y obras imponen a su titular, sin perjuicio de lo que se derive de las licencias preceptivas, la obligación de adoptar medidas para evitar que se ensucie la vía pública, así como la de limpiar con la frecuencia adecuada la parte afectada de la misma, y retirar los materiales residuales resultantes.

2. El Ayuntamiento podrá requerir al responsable para que efectúe las acciones de limpieza correspondientes.

3. Cuando se trate de edificios en construcción, rehabilitación, reforma o derribo, será el titular de la licencia de la obra el responsable de la limpieza de vía pública que se vea afectada por las obras.

*Artículo 39. Protección de la obra.*

1. Para prevenir la suciedad, las personas que ejecuten trabajos u obras que afecten o puedan afectar a la vía pública deberán proceder a la protección de ésta mediante la colocación de elementos adecuados a su alrededor, de modo que se impida la expansión y vertido de tierras y materiales sobrantes de obra fuera de la zona autorizada o perímetro delimitador de la obra.

2. Se prohíbe depositar en la vía pública no acotada por el perímetro de la obra, tierras, arenas, gravas y demás materiales, así como elementos mecánicos de contención, excavación y demás auxiliares de construcción, salvo autorización municipal expresa recogida en la correspondiente licencia de obras, manteniendo dicho espacio siempre limpio.

3. Al término de cada jornada laboral, las zonas de trabajo, zanjas, canalizaciones, etc., realizadas en la vía pública deberán quedar suficientemente limpias, protegidas y adecuadamente señalizadas en previsión de accidentes, incluyendo elementos de balizamiento nocturno.

*Artículo 40. Limpieza previa de vehículos a la salida a la vía pública.*

1. En el recinto de la obra deberá disponerse de una plataforma apta para limpiar, antes de que salgan a la vía pública, las ruedas y demás elementos de los vehículos que puedan ensuciar la calzada.

2. El incumplimiento de esta prevención llevará aparejada, además de la oportuna sanción, la prohibición por parte de la Policía Local de acceso a la vía pública de dichos vehículos de la obra.

*Artículo 41. Hormigoneras.*

1. El transporte de hormigón por la vía pública se realizará poniendo el transportista todos los medios del vehículo que impidan el vertido o caída de dicho hormigón a la vía pública.

2. Se prohíbe limpiar las hormigoneras en la vía pública y en cualquier otro lugar no adecuado para ello.

3. Del incumplimiento de los dos apartados anteriores serán responsables el propietario del vehículo y su conductor y responsable subsidiario el promotor de la obra o titular de la actividad a la que den servicio, quedando obligados a la limpieza del hormigón que se vierta, y de la vía pública afectada, sin perjuicio de las sanciones que correspondan.

EK\CV GAO-I-2019-00997

*42. artikulua. Lurren eta obra-hondakinen garraioa.*

1. Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzeko ibilgailuek beharreko baldintzak beteko dituzte bide publikora isurketarik egin ez dezaten.

2. Istripu, iraulketa edo beste edozein gorabeheraren ondorioz karga bide publikora erori edo isurtzen bada, eta bideko segurtasunari begira arriskuak sor baditzake, gidariek ahalik eta azkarren eman beharko diote horren berri Udaltzaingoari.

3. Horrekin batera, eroritakoa bildu eta arrisku eremutik kanpo eramaten hasiko dira, garbiketa zerbitzuek eman diezaieketen laguntzaren zain. Nolanahi ere, gorabehera horiek sorturiko gastuak ibilgailuen jabeek edo gidariek ordainduko dituzte.

4. Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzen dituztenek, ukituriko bide-zatia berehala garbitzeko obligazioa dute, karga, deskarga eta garraio lanen ondorioz bide publikoa zikintzen bada.

5. Era berean, edozein unetan eta Udal organoek eskatzen duten guztietan kendu behar dituzte baimendu gabeko lekuetan isuritako lurrak eta obra-hondakinak. Horrez gainera, dagozkien zehapenak jarri ahal izango zaizkie.

*43. artikulua. Obra-edukiontziak.*

1. Udalak eskumena izango du obra edukiontzien jabea den enpresari eta hala badagokio enpresa eraikitzaileari edukiontzi horiek kenarazteko jai, kultur eta kirol jarduerak burutzeko eta apainketa publikoa zaintzeko.

2. Obra edukiontziekin loturiko guztian, Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatean Hiri Hondakinen Kudeaketa Arautzen duen Ordenantzak araututakoa beteko da (39. eta 41. artikuluak).

III TITULUA

HIGIEZINAK KANPO ALDETIK GARBITZEA

I. KAPITULUA. ERAIKIN PUBLIKO ETA PRIBATUEN KANPOALDEKO GARBIKETA

*44. artikulua. Higiezinen kanpoaldeko elementu eta atalen garbiketa eta mantenua.*

1. Higiezinen jabeek eta establezimenduen titularrek higiezin horiek beharrezko garbiketa publikoaren baldintzetan mantentzeko obligazioa dute.

Garbiketa, berritze edo iztukadura lanak egin beharko dituzte –fatxaden, errotuluen, arteko hormen, sarreren, sartzeko eskaileren, lorategien eta, oro har, higiezinak dituen eta bide publikotik ikusten diren arkitektura elementu eta material guztien izaeraren arabera–, zikinak daudenean edo Udalak agintzen duenean, udal zerbitzuek aurrez txostena egin ondoren.

2. Burdin sareak, balkoien barandak, olanen burdineria eta gainerako metalezko elementuak herdoilik gabe edukiko dira eta behar denean margotu eta konpondu egingo dira. Udalak horretarako agindua eman dezake, udal zerbitzuek aurrez txostena egin ondoren.

3. Finketan, bide publikoarekiko itxitura heskaiak, zuhaixkak edo antzekoak badira, landare horiek egoera onean mantenduko dira, bide publikoa inbaditu gabe. Jabeek zainduko dute ez dezatela oinezkoen eta ibilgailuen ohiko joan-etorria eragotzi.

*Artículo 42. Transporte de tierras y escombros.*

1. Los vehículos en que se efectúe el transporte de tierras y escombros reunirán las debidas condiciones para evitar el vertido de su contenido sobre la vía pública.

2. En caso de accidente, vuelco u otras circunstancias que originen el desprendimiento o derrame de la carga en la vía pública y pueda generar riesgos para la seguridad vial, los respectivos conductores deberán notificar el hecho con la máxima urgencia a la Guardia Municipal.

3. Al mismo tiempo se iniciará la tarea de recogida y depósito fuera de la zona de riesgo, a la espera de la ayuda que los servicios de limpieza puedan ofrecerle. En cualquier caso, el costo imputable de estas incidencias correrá a cargo de los propietarios o conductores de los vehículos.

4. Los transportistas de tierras y escombros están obligados a proceder a la limpieza inmediata del tramo de vía afectada, en el supuesto de que la vía pública se ensuciase a consecuencia de las operaciones de carga, descarga y transporte.

5. También quedan obligados a retirar en cualquier momento, y siempre que sean requeridos por el órgano municipal, las tierras y escombros vertidos en lugares no autorizados, sin perjuicio de las sanciones que correspondan.

*Artículo 43. Contenedores de obra.*

1. El Ayuntamiento se reserva la potestad de obligar a la empresa propietaria de los contenedores de obra y en su caso a la empresa constructora, a la retirada de dichos contenedores para la normal realización de actividades festivas, culturales, deportivas y en los casos de seguridad o salvaguarda del ornato público.

2. En todo lo relacionado con los contenedores de obra, se estará a lo regulado en la Ordenanza Reguladora de la Gestión de los Residuos Urbanos en la Mancomunidad de Servicios de Txingudi.

TÍTULO III

LIMPIEZA EXTERIOR DE LOS EDIFICIOS

CAPÍTULO I. DE LA LIMPIEZA EXTERIOR DE EDIFICIOS PÚBLICOS Y PRIVADOS

*Artículo 44. Limpieza y mantenimiento de elementos y partes exteriores de los inmuebles.*

1. Los propietarios de inmuebles y los titulares de establecimientos están obligados a mantenerlos en las debidas condiciones de limpieza pública.

Deberán proceder a la limpieza, remozado o estucado –según resulte más acorde con la naturaleza de fachadas, rótulos, paredes medianeras, entradas, escaleras de acceso, jardines y, en general, de todos los elementos arquitectónicos y materiales incorporados al inmueble que sean visibles desde la vía pública– cuando sea perceptible su estado de suciedad o lo prescriba el Ayuntamiento previo informe de los servicios municipales para garantizar la seguridad de las personas.

2. Las verjas, barandillas de balcones, herrajes de toldos y demás elementos metálicos se mantendrán libres de óxido y habrán de ser pintados y reparados, pudiendo prescribirlo el Ayuntamiento previo informe de los servicios municipales.

3. Aquellas fincas cuyos cerramientos con la vía pública consistan en setos, arbustos, árboles o similares deberán permanecer en buen estado, sin invadir la vía pública. Sus propietarios se ocuparán de que no perturben ni molesten el normal tránsito de peatones y vehículos.

EK\CV GAO-I-2019-00997

*45. artikulua. Publizitatea.*

1. Kanpoko publizitatea, edozein euskarritan eta edozein dela ere dituen ezaugarriak eta helburuak, bereziki helburu horretarako egokituriko lekuetan soilik instalatu ahal izango da, eta aplikatu beharreko berariazko araudia bete beharko da betiere.

2. Horrenbestez, debekatuta dago, udalaren baimen espresik ez bada, eraikin publiko edo pribatuen fatxada, karrerape, markesina, hiri altzari, zuhaitz, horma, tunel eta lurpeko igarobideetan eta, oro har, bereziki horretarako diren lekuetatik kanpo edozein eratako iragarkiak jartzea. Era berean, ez dago baimenduta leku horietan guztietan edozein izaera politikoko edo beste edozein erako pegatina, kartel, paskin, pankarta edo banderatxo jartzea.

*46. artikulua. Kartelak eta banderatxoak.*

1. Bide publikoan kartelak eta banderatxoak jartzeko baimen espresa eman ahal izango du Udalak honako kasu hauetan:

a) Hirian garrantzi handiko kultur, arte edo kirol ekitaldiak egiten direnean.

b) Hirirako interesa duten kontzertu, ekitaldi edo erakusketak indartu eta nabarmentzen laguntzen dutenean.

c) Hauteskunde kanpainetan, behar bezala baimendutako lekuetan.

Salbuespen gisa, bide publikoan kartelak eta banderatxoak baimendu ahal izango dira aipatutakoak ez diren beste kasu batzuetan.

2. Udalak arautuko ditu kasu guztietan xede hori duten espazioak erabiltzeko baldintzak eta dagokion lizentzia edo baimena lortzeko beharreko tramiteak, eta dagokion fidantza eskatu ahal izango du garantia gisa. Hala ere, inoiz ezin dira zuhaitzak erabili kartelak edo banderatxoak zintzilikatu edo jartzeko.

3. Artikulu honek aipagai duen lizentzia edo baimen eskaerak honako zehaztapen hauek jaso beharko ditu gutxienez:

a) Kartel edo banderatxoen edukia eta neurriak, publizitate bakoitzak hartzen duen azaleraren % zehaztuta.

b) Jarriko diren lekuak.

c) Instalaturik egongo diren denbora.

d) Erretiratzeko eta egin ditzaketen kalteak konpontzeko konpromisoa.

4. Eskaeraren eta baimenaren zehaztapenetara egokituko dira kartelak eta banderatxoak.

5. Emaniko epea amaitu bezain laster kenduko dira kartelak eta banderatxoak. Sustatzaileak ez baditu kentzen, udal zerbitzuek erretiratuko dituzte, baina kostuak erantzuleak ordaindu beharko ditu.

Ondorio berberak izango ditu baimenik gabe jartzen badira eta baimendutakora egokitzen ez badira.

6. Artikulu honetan eta korrelatiboetan jasotako aurreikuspenak Hondarribiko Udalari berari eta gainerako instituzio eta erakunde publikoei aplikatu ahal izango zaizkie.

*47. artikulua. Eraikin bereziak.*

1. Historiko-artistiko gisa katalogaturiko eraikinetan eta enblematikoak direnetan ez da inolako publizitaterik onartuko, ezin izango dira kartelak, banderatxoak edo errotuluak jarri, salbu eta haien ezaugarrien berri ematen badute, eraikinean garatzen diren jarduerak aipatzen badituzte edo bertako berritze edo birgaitze obrei buruzkoak badira.

*Artículo 45. Publicidad.*

1. La publicidad exterior, en cualquier soporte y cualesquiera que sean sus características o finalidades, únicamente podrá instalarse en los lugares especialmente habilitados para ese fin y cumpliendo la normativa específica que le es de aplicación.

2. No está permitido, en tal sentido, salvo autorización municipal expresa, colocar cualquier tipo de anuncio en fachada de edificios públicos o privados, porches, marquesinas, mobiliario urbano, arbolado, muros, escaleras y en general fuera de los lugares especialmente habilitados. De igual modo, se prohíbe poner en los mencionados lugares cualquier clase de pegatina, cartel, pasquín, pancarta o banderola de carácter político o de otra índole.

*Artículo 46. Carteles y banderolas.*

1. La colocación de carteles y banderolas en la vía pública, podrá autorizarse expresamente por el Ayuntamiento en los siguientes supuestos:

a) Cuando se celebren en la ciudad acontecimientos culturales, artísticos o deportivos de gran relieve.

b) Cuando contribuyan a realzar la celebración de conciertos, actos o exposiciones de interés para la ciudad.

c) En campañas electorales, en los espacios debidamente autorizados.

De modo excepcional, podrá autorizarse la colocación de carteles y banderolas en la vía pública en supuestos diferentes a los señalados.

2. El Ayuntamiento regulará en cada caso las condiciones en que podrán utilizarse los espacios que a tal fin se destinen y los trámites necesarios para obtener la correspondiente autorización, pudiendo exigir la correspondiente fianza como garantía. No obstante, nunca podrá utilizarse el arbolado para sujetar o colgar los carteles o banderolas.

3. La solicitud de autorización a la que se refiere este artículo deberá incluir, como mínimo, las siguientes precisiones:

a) Contenido y dimensiones de los carteles o banderolas, indicando el % de ocupación de superficie por publicidad.

b) Sitios donde se colocarán.

c) Tiempo que permanecerán instalados.

d) Compromiso de retirarlos y reparar los daños que pudieran ocasionar.

4. Los carteles y banderolas se atendrán a las especificaciones de la solicitud y de la autorización.

5. Los carteles y banderolas se quitarán tan pronto transcurra el plazo concedido. De no hacerlo así el promotor, serán retirados por los servicios municipales, imputándose al responsable los costes, sin perjuicio de las sanciones a que hubiere lugar.

Idénticas consecuencias tendrá su colocación no autorizada y cuando no se ajusten a lo permitido.

6. Las previsiones contenidas en este artículo y en los correlativos serán aplicables al propio Ayuntamiento de Hondarribia y al resto de instituciones y organismos públicos.

*Artículo 47. Edificios singulares.*

1. En los edificios catalogados, histórico-artísticos y otros que sean emblemáticos, no se admitirá ninguna clase de publicidad, ni se podrán exhibir carteles, banderolas o rótulos, excepto los que informen de sus características, hagan referencia a las actividades que en el edificio se desarrollen o se refieran a sus obras de reforma o rehabilitación.

EK\CV GAO-I-2019-00997

*48. artikulua. Pintadak eta grafitiak.*

1. Ez dago baimenduta pintadak egitea, bai bide publikoan bai eraikin publiko edo pribatuen fatxadetan, hiri altzari, zuhaitz, estatua eta monumentuetan eta, oro har, hiriko paisaiako edozein elementutan.

2. Salbuetsita daude orubeen hesietan, obra itxituretan, mehelinetan eta antzekoetan marraztutako horma-irudiak, betiere aldez aurretik udal baimena badute eta ezarritako zehaztapenak betetzen badira.

3. Eraikin publiko batean edo hiri altzarietan pintadak egiten badira, paperak jartzen badira, kristaletan marrak egiten badira, kartelak jartzen badira edo hura hondatzen duen beste edozein ekintza egiten bada, Udalak erantzukizuna duen enpresa edo pertsonari leporatu ahal izango dizkio garbiketa eta egokitze fakturen kostuak, eta horrez gainera, zehapena ere jarri ahal izango zaio.

II. KAPITULUA. URBANIZAZIO ETA ORUBEEN GARBIKETA

*49. artikulua. Espazio pribatuen garbiketa.*

1. Urbanizazio pribatuetako espaloiak, igarobideak, galtzadak, plazak eta lorategiak garbitzeko lana jabeei dagokie.

2. Jabeek etxadiko barne patioak, orube partikularrak, merkataritza galeriak eta antzekoak garbitzeko obligazioa dute.

3. Elementu pribatu horien guztien garbiketa egoeraren kontrola eta ikuskapena egingo du Udalak, eta erantzuleei garbitzeko eskatuko die, zeregin horretarako udal zerbitzuek emaniko aginduen arabera.

4. Merkataritza lokalen jabeek beren fatxadak egokituko dituzte eraikinaren apaindura, mantenu eta ezaugarrietara, xede horretarako zehaztutako xedapenen arabera.

*50. artikulua. Orube eta lur pribatuak.*

1. Orube eta lurren jabeek zabor eta hondakinik gabe eduki beharko dituzte horiek, eta beharreko osasun, higiene, segurtasun eta apaindura publiko baldintzetan. Era berean, arratoiak eta intsektuak hilko dituzte horretarako baimena duen enpresa baten bidez.

2. Artikulu honetako lehen paragrafoan aurreikusitako egoera gertatzen ez bada, edo jabeak ez badaude, Udalak, izaera subsidiarioz eta legearen arabera indarrean dauden mugak kontuan harturik, beharrezko neurriak hartuko ditu ondorio horietarako, eta lur horretara sartu ahal izango da aurreko paragrafoan jasotako xedearekin. Sortzen diren kostuak jabeek ordainduko dituzte.

IV. TITULUA

BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA ETA ERABILERA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*51. artikulua. Lanak egitea bide publikoan.*

1. Debekatuta dago bide publikoa lanbideak garatzeko erabiltzea, oro har, eta bide publikoaren erabilera gainerako hiritarrei mugatu edo galarazten dien beste edozein ekintza egitea ere bai; gainera, bide publikoaren erabilera komunari eta erabilera pribatiboari buruz honako artikuluetan dagoen araudia bete beharko da.

2. Ez dago baimenduta bide publikoan tresna elektrikoak erabiltzea (zulagailuak, zerrak, disko-makinak, etab.), baita esku-makinak (zerrak, mailuak etab.) eta makina pneumatikoak (margotzeko pistolak, etab.) ere, ez badira bidea bera konpontzeko erabiltzen.

*Artículo 48. Pintadas y grafitis.*

1. No están permitidas las pintadas, grafitis y rayaduras tanto en la vía pública como en fachadas de edificios públicos o privados, mobiliario urbano, arbolado, estatuas, monumentos y, en general, sobre cualquier elemento de la ciudad.

2. Se exceptúan los murales dibujados sobre vallas de solares, cierres de obras, paredes medianeras y similares, siempre que se obtenga previamente autorización municipal y se cumplan sus especificaciones.

3. Cuando un edificio público o elemento del mobiliario urbano haya sido objeto de pintadas, colocación de papeles, rayado de cristales, pegado de carteles o cualquier otro acto que lo deteriore, el Ayuntamiento podrá imputar a la empresa o persona responsable el coste de las correspondientes facturas de limpieza y acondicionamiento, al margen de la sanción que corresponda.

CAPÍTULO II. DE LA LIMPIEZA DE URBANIZACIONES Y SOLARES

*Artículo 49. Limpieza de espacios privados.*

1. La limpieza de aceras, pasajes, calzadas, plazas y jardines de las urbanizaciones privadas corresponde a sus propietarios.

2. Será obligación de los propietarios la limpieza de patios interiores de manzana, solares particulares, galerías comerciales y similares.

3. El Ayuntamiento ejercerá el control e inspección del estado de limpieza de todos estos elementos privados, y requerirá a los responsables para su limpieza, de acuerdo con las instrucciones que al efecto dicten los servicios municipales.

4. Los propietarios de locales comerciales adecuarán sus fachadas en cuanto a ornato, mantenimiento y características de edificación de acuerdo con las especificaciones que a tal fin estén establecidas.

*Artículo 50. Solares y terrenos privados.*

1. Los propietarios de solares y terrenos deberán mantenerlos libres de desechos y residuos, y en las debidas condiciones de salubridad, higiene, seguridad y ornato público. Deberán, asimismo, proceder a desratizarlos y desinsectarlos mediante empresa autorizada.

2. En caso de que no se produzca la situación prevista en el primer párrafo del presente artículo, o de ausencia manifiesta de los propietarios, el Ayuntamiento procederá, con carácter subsidiario y con las limitaciones legales de rigor, a tomar las medidas adecuadas a estos efectos, pudiendo acceder al terreno con los fines expresados en el párrafo anterior, imputándose a los propietarios los costes que se ocasionen.

TÍTULO IV

OCUPACIÓN Y USO DEL ESPACIO PÚBLICO

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 51. Trabajos en la vía pública.*

1. No está permitido utilizar la vía pública para el ejercicio de oficios y trabajos y, en general, realizar cualquier acto que limite o excluya su utilización por el resto de los ciudadanos, sin perjuicio de la normativa contenida en los artículos siguientes respecto al uso común especial y al uso privativo de la vía pública.

2. No está permitida la utilización en la vía pública de herramientas eléctricas (taladros, sierras, amoladoras, etc.), manuales (sierras, martillos, etc.) o neumáticas (pistolas de pintado, etc.) siempre que no se utilicen para la reparación de la propia vía.

EK\CV GAO-I-2019-00997

*52. artikulua. Bide publikoan filmak filmatzea.*

Filmen errodajea udal baimenak ezarritako toki, ordutegi eta baldintzetan egingo da.

*53. artikulua. Kale ikuskizunek bide publikoa okupatzea.*

1. Bide publikoan egiten diren ikuskizun guztiek, ez badira Udalaren kultur jardueratako bat, dagokion udal baimena beharko dute.

2. Arau orokor gisa, ikuskizunek honako baldintzak bete beharko dituzte, udal baimena besterik ez dioen bitartean:

a) Oinezkoen plazetan eta gainerako oinezkoak egoki pasatu ahal izateko moduko kale zabaletan egingo dira. Ez dute inoiz ibilgailuen bidea erabiliko. Ezingo dira monumentu, eraikin historiko edo kultur intereseko ondasunen aurrean instalatu.

b) Ezingo dute oinezkoen joan-etorria geldiarazi, eragotzi edo zaildu, ezta bizilagunak etxebizitzera joateko sarbidea, establezimenduetarako sarbidea eta erakuslehioetarako ikuspegia oztopatu ere.

c) Ezin izango da inoiz ikus-entzunezko osagairik, megafoniarik edo soinu anplifikadorerik erabili. Gainera, ezin izango da hiritarrari eragozpenak sortzeko moduko perkusio instrumenturik edo soinu kirrinkaririk egin, ezta suarekin ariketak egin eta airera objektuak bota edo animaliak erabili ere.

d) Debekatua dago ikuskizunean 16 urtetik beherako adingabeak sartzea.

e) Loaren ordutegia errespetatu beharko da, beraz jarduera 17:00tatik 21:00tara garatuko da.

f) Ezingo da 30 minutu baino denbora luzeagoan jardun, eta leku berean errepertorioa errepikatu ere ez.

II. KAPITULUA. EREMU PUBLIKOA TRIPULAZIORIK GABEKO AIRE IBILGAILUEN HEGALDIRAKO ERABILTZEA (DRONAK ETA ANTZEKOAK)

*54. artikulua. Irizpide orokorra.*

1. Ez da zilegi horrelako aparailuek hiri zonen gainean, jende pilaketa dagoen tokietan, gauez eta Aireportuaren ondoan hegan egitea.

2. Edonola ere, aparailu horien pilotuak behar bezala trebatuta, gaituta eta Aire Segurtasuneko Estatuko Agentzian erregistratuta egon beharko du.

3. artikulu hori urratzen bada eskumena duen udal organoak Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziari gai horri buruzko guztia jakinaraziko dio.

4. Udalak baimendu ahal izango du horrelako aparailuekin bere jabetzako barruti itxietan aritzea (pabiloietan, kirol barrutietan, kontzertu aretoetan...).

5. Aurreko 2. puntua ez da aplikagarria izango modu ludikoan erabilitako aparatuetan eta modelismo gisakoetan, dena dela, erabili beharko dira pertsonen edo besteen jabetzak arriskuan jarri gabe.

III. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA APUSTUAK EGITEKO ERABILTZEA

*55. artikulua. Irizpide orokorra.*

Debekatuta dago eremu publikoan diru edo ondasun apustuak dakartzaten jokoak eskaintzea. Eskaintza hori, bereziki debekatuta dago adingabeen taldearen eskubideak urratzen direnean, beste batzuenen artean.

*Artículo 52. Rodaje de películas en la vía pública.*

El rodaje de películas en la vía pública se realizará en los lugares, horario y condiciones que determine la autorización municipal.

*Artículo 53. Ocupación de la vía pública por espectáculos callejeros.*

1. Todo espectáculo público a realizar en la vía pública, ajeno a la actividad cultural organizada por el Ayuntamiento, deberá contar con la necesaria autorización municipal.

2. Como norma general, los espectáculos deberán cumplir los siguientes requisitos, a no ser que la autorización municipal disponga otra cosa:

a) Se deberá desarrollar en plazas peatonales, calles suficientemente anchas para el correcto discurrir del resto de peatones. En ningún momento utilizarán la parte de la vía destinada al tráfico rodado. No podrán instalarse frente a monumentos, edificios históricos o bienes de interés cultural.

b) No podrán abordar, impedir o dificultar el libre tránsito de peatones, ni tampoco impedir el acceso de los vecinos a sus viviendas, el acceso a los comercios y la vista de los escaparates.

c) En ningún caso se permitirá el uso de elementos audiovisuales, de megafonía o amplificadores de sonido. Tampoco está permitida la utilización de instrumentos de percusión o sonido estridente que moleste al ciudadano, realizar ejercicios con fuego, lanzar objetos al aire o utilizar animales.

d) Estará prohibido incorporar a su espectáculo a menores de 16 años.

e) Deberá respetar el horario de sueño, centrando su actividad entre las 17 h. y las 21 h.

f) No podrán actuar más de 30 minutos y repetir el mismo repertorio en el mismo lugar.

CAPÍTULO II. UTILIZACIÓN DEL ESPACIO PÚBLICO PARA VUELO DE VEHÍCULOS AÉREOS SIN TRIPULACIÓN (DRONES Y SIMILARES)

*Artículo 54. Criterio general.*

1. No está permitido el vuelo de éste tipo de aparatos sobre zonas urbanas, aglomeraciones de personas, de noche y cerca del Aeropuerto.

2. En todo caso el piloto de estos aparatos deberá estar legalmente capacitado, habilitado y registrado en la Agencia Estatal de Seguridad Aérea.

3. En caso de infracción de este artículo, el órgano municipal competente pondrá en conocimiento de la Agencia Estatal de Seguridad Aerea todo lo relativo al hecho en cuestión.

4. El Ayuntamiento podrá autorizar operaciones con este tipo de aparatos en recintos cerrados (pabellones, recintos deportivos, salas de conciertos...) de su propiedad.

5. El punto 2.º anterior no será de aplicación a aquellos aparatos utilizados de forma lúdica y los de modelismo, aunque deberán de ser utilizados sin que pongan en riesgo la integridad de personas o propiedades ajenas.

CAPÍTULO III. UTILIZACIÓN DEL ESPACIO PÚBLICO PARA APUESTAS

*Artículo 55. Criterio general.*

Está prohibido en el espacio público el ofrecimiento de juegos que impliquen apuestas con dinero o bienes. Tendrá especial consideración cuando se vulneren derechos de colectivos como por ejemplo los menores.

EK\CV GAO-I-2019-00997

IV. KAPITULUA. APARKALEKUAK OBRA ETA BESTELAKOETARAKO ERRESERBATU ETA MUGARRITZEA

*56. artikulua. Bide publikoan aparkalekuak erreserbatu eta mugatzea.*

1. Aparkalekuak erreserbatu behar badira bide publikotik karga eta deskarga lanak egiteko, etxe aldaketak egiteko, aldamioak muntatzeko, edukiontziak jartzeko, zuhaitzak inausteko, eta abarrerako, nahitaezkoa izango da aldez aurretik udal baimena lortzea erreserba hori egiteko. Lan horiek egiteko interesa duten pertsonek, eskabidea aurkeztu beharko dute lanak egitea aurreikusita dagoen eguna baino 48 ordu baliodun lehenago.

Baimena ematerakoan, baimenean zerrendatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

2. Erreserba horiek egiteko beharrezkoa den materiala udaltzaingoak emango du. Erreserba horrek gainditu egiten badu hasierako epea eta luzatu egiten bada denboran, material horren ordez enpresa esleipendunak emandakoa jarriko da, eta arreta berezia emango zaio seinaleztapenari, argiztapenari eta kokapen egokiari, pertsonen eta ibilgailuen osotasuna zaintzeko.

3. Lanak egiteko beharrezkoa bada trafikoa arautzea, enpresa esleipendunak egingo du lan hori.

4. Edonola ere, Udaltzaingoak kontuan izango du lanek dagokion obra baimena izan dezatela eta ahalik eta gutxien eragitea oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorriari. Kontuan izango da Ordenantza honetako 51. artikuluan adierazitako guztia.

V. KAPITULUA. HONDARTZA ETA BAINURAKO EREMUAK ERABILTZEA

*57. artikulua. Hondartzako eta bainu eremuetako erabiltzaileen jokaera.*

Hondarribiko hondartza eta bere inguruak oso ondasun preziatua dira Hiriarentzat eta bere biztanleentzat.

Hori dela eta, erabiltzaile guztiei dagokie hiri eremu hori egoki erabiltzea.

1. Hondartzetako segurtasunerako, bereziki itsas jarduerei dagokienez, beharrezkoa da ematen duten jarraibideak betetzea eta baldintzei eta bainu-lekuei buruz ematen diren seinaleztapenak betetzea.

Bandera berdeak adierazten du ez dagoela arriskurik, beraz jarduera normala garatu ahal dela hondartzan.

Bandera horiarekin arreta handia izan behar da uretan.

Bandera gorriarekin debekatuta dago bainatzea.

2. Ez dago baimenduta uda garaian –ekainaren 15etik irailaren 15a arte– hondartzan animaliak egotea edo bertatik pasatzea. Betetzen ez bada Udaltzaingoak dagozkien zerbitzuei deituko die ken ditzaten, eta jabeak ordaindu beharko ditu dagozkion gastuak.

3. Debekatuta dago edozein ibilgailu mota hondartzatik ibiltzea. Ibiliz gero dagokion zehapena jarriko zaio. Debeku honetatik salbuetsita daude hondartzaren garbiketarako eta zerbitzurako direnak eta larrialdiko ibilgailuak.

4. Ez dago baimenduta kanpatzea eta mahaiak, esekilekuak, olanak, «piknik» jarduerarako aukiak etab. jartzea. Era berean ez dago baimenduta barbakoak erabiltzea bai hondartzan eta bai hondartzaren inguruetan.

CAPÍTULO IV. RESERVAS Y ACOTAMIENTOS DE APARCAMIENTOS PARA OBRAS Y OTROS

*Artículo 56. Reservas y acotamientos de los aparcamientos en vía pública.*

1. Cuando la realización de las operaciones de carga y descarga, mudanzas, montajes de andamios, colocación de contenedores, trabajos de poda de árboles, etc. que conlleven la reserva de aparcamientos y que se efectúe desde la vía pública, será preceptivo la obtención de la correspondiente autorización municipal para dicha reserva, previa solicitud de las personas interesadas en dichas labores y con una antelación mínima de 48 horas hábiles respecto del previsto para su realización.

En el momento de la concesión, deberán cumplir con la totalidad de las condiciones que se relacionen en la autorización.

2. El material necesario para dichas reservas será aportado por la Guardia Municipal. En el caso de que esta reserva persista de su periodo inicial y se prolongue en el tiempo, este material será sustituido por el que deba aportar la empresa adjudicataria, teniendo especial cuidado en la señalización, iluminación y adecuada colocación, salvaguardando la integridad de personas y vehículos.

3. En caso de que para la realización de estos trabajos sea necesario el regular el tráfico, será labor a realizar por la empresa adjudicataria.

4. En todo caso, desde la Guardia Municipal, se tendrá en cuenta que los trabajos dispongan del correspondiente permiso de obras si fuera necesario y que afecte en lo menor posible al normal discurrir los peatones y del tráfico rodado. Se tendrá en cuenta todo lo indicado en el art. 51 de la presente Ordenanza.

CAPÍTULO V. UTILIZACIÓN DE LA PLAYA Y ZONAS DE BAÑO

*Artículo 57. Comportamiento ciudadano de los usuarios de la Playa y otras zonas de baño.*

La playa de Hondarribia y su entorno es un bien muy preciado de la Ciudad y sus habitantes.

Por ello compete a todos los usuarios de la misma la correcta utilización de esta zona urbana.

1. La seguridad en las playas, y especialmente en las actividades en el mar, exige la observación de las indicaciones que se den y el respeto de las señalizaciones sobre las condiciones y los lugares de baño.

La bandera verde indica que no hay peligro, lo que permite una actividad normal en la playa.

Con bandera amarilla deberán extremarse las precauciones en el agua.

La bandera roja significa la prohibición del baño.

2. No está permitida la permanencia o el paseo de animales por la playa en época estival comprendida del 15 de junio al 15 de septiembre. En caso contrario la Guardia Municipal se ocupará de avisar a los servicios correspondientes para su retirada, debiendo el propietario del mismo abonar los gastos relativos.

3. No está permitida la circulación de cualquier tipo de vehículo por la playa. Llevará aparejada la correspondiente sanción. Quedan excluidos de esta prohibición los relativos a limpieza y servicio de la playa y los correspondientes a los servicios de emergencia.

4. No está permitida tanto la acampada como la utilización de mesas, tenderetes, toldos, sillas para la actividad de «picnic». También está prohibido el uso de barbacoas tanto en la playa como en su entorno.

EK\CV GAO-I-2019-00997

5. Ez dago baimenduta dutxak eta iturri publikoak berezkoa ez duten erabilerarako erabiltzea, adibidez: arropa garbitzeko, ontziak garbitzeko, animaliak garbitzeko, eta abarrerako.

6. Debekatuta dago hondartzako dutxa publikoetan xaboia edo higienerako bestelako osagaiak erabiltzea.

V. TITULUA

ZIGOR ERREGIMENA

I. ATALA. Arau-hausteak, arau-hauste motak, eta isunak

*58. artikulua. Arau-hausteak.*

1. Arau-hauste administratiboa da Ordenantza honetako xedapenak ez betetzea eta bertan ezarritako debekuak urratzea.

2. Ordenantza honetan xedatutako arau-hausteak zigortu egingo ditu Alkatetza-Lehendakaritzak edo hura eskuordetzen duen Organoak, Titulu honetan ezarritakoaren arabera, legeriak baimentzen dituen mugen barruan.

Hori guztia, kasu bakoitzean egon litezkeen erantzukizun zibil eta penalak ere kontuan hartuta. Gainera, Udaltzaingoak Agintari judizialei gertaera zigorgarriaren berri emango die.

*59. artikulua. Arau-hauste motak.*

1. Arau-hausteak izan daitezke arinak, larriak edo oso larriak, kontuan izanda asmoa, bizikidetza eza jokaeran, utzikeria maila, dagoen arriskua pertsonen osasunerako eta segurtasunerako, sortutako kaltearen larritasuna, eta berrerortzea.

2. Eragin horietarako, iritziko da berrerorketa dagoela arau-haustea egin duen pertsona aurreko hamabi hilabeteetan kontzeptu beragatik behin edo behin baino gehiagotan zehatu bada.

3. Arintzat joko dira honako artikuluak urratzen dituzten arau-hausteak: 8.1 eta 8.3; 12.2 (e eta d izan ezik); 13 (5 eta 6 izan ezik), 14.2 (c, j izan ezik), 15.3.4.5.7; 17; 18; 21; 22; 23; 24; 25; 26; 27; 28; 29; 30; 31; 32; 34; 35; 36; 43; 44; 50; 51; 53 eta 57.

Arau hauste-arintzat joko da jabari publikoko ondasunetan kalteak eragitea, kalteen zenbatekoa ez denean 10.000 eurotik gorakoa.

Arau-hauste arintzat joko da Udaltzainek emandako agindua ez betetzea Ordenantza honetako zehaztapenak betetzeko eskakizunari dagokionez, betiere ez obeditze hori ez bada arau-hauste penala izateko modukoa.

4. Larritzat joko dira honako artikuluak urratzen dituzten arau-hausteak:

12.2.d) eta 12.2.e), 13.5 eta 13.6; 14.2.c) eta 14.2.j), 15.6; 16.2; 37; 38; 39; 40; 41; 45; 46; 47; 48; 49; 54; 55 eta 56.

Arau-hauste larritzat joko da jabari publikoko ondasunei kalteak eragitea kalteen zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa denean eta 1.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen ez duenean.

Gainera, aurreko 12 hilabeteetan ere arau-hauste arina egin bada arau-hauste larritzat joko da.

5. Oso larritzat joko dira honako artikuluak urratzen dituzten arau-hausteak:

14 2.c eta 14.2.e) (bakarrik produktu toxikoak isurtzea).

Arau-hauste larritzat joko da jabari publikoko ondasunei kalteak eragitea kalteen zenbatekoa milioi bat eurotik gorakoa bada.

5. No está permitida la utilización de las duchas y fuentes públicas para aquellas labores que sean ajenas a su finalidad, tales como: colada de ropa, limpieza de menaje, limpieza de animales, etc.

6. No está permitido utilizar jabón u otros elementos de higiene en las duchas públicas de las playas.

TÍTULO V

RÉGIMEN SANCIONADOR

SECCIÓN I. Infracciones, clases de infracciones y sanciones

*Artículo 58. Infracciones.*

1. Constituye infracción administrativa el incumplimiento de las disposiciones que contiene esta Ordenanza y la vulneración de las prohibiciones que en ella se establecen.

2. Las infracciones de lo dispuesto en esta Ordenanza serán sancionadas por la Alcaldía-Presidencia u Órgano en quien delegue, de acuerdo con lo establecido en el presente Título, dentro de los límites que la legislación autoriza.

Todo ello sin perjuicio de las responsabilidades civiles y penales a que hubiere lugar en cada caso, poniéndose por parte de la Guardia Municipal en conocimiento de la Autoridad Judicial el hecho punible.

*Artículo 59. Clases de infracciones.*

1. Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves, atendiendo a la intencionalidad, omisión de convivencia en el comportamiento, grado de negligencia, riesgo para la salud y seguridad de las personas, gravedad del perjuicio causado y reincidencia.

2. A estos efectos, se considerará que existe reincidencia cuando el infractor hubiese sido sancionado en los doce meses precedentes, por el mismo concepto, una o más veces.

3. Serán consideradas como leves las infracciones a los siguientes artículos: 8.1.º y 3.º, 12.2.º (excepto d y e), 13 (excepto 5.º y 6.º), 14.2.º (excepto c, j), 15.3.º4.º5.º7.º, 17, 18, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 34, 35, 36, 43, 44, 50, 51, 53, 57.

Se considerará infracción leve la producción de daños en los bienes de dominio público cuando su importe no exceda de 10.000 euros.

Tendrá la consideración de infracción leve la desobediencia a una orden dada por los Agentes de la Guardia Municipal con relación a la exigencia de cumplimiento de las determinaciones de la presente Ordenanza, siempre que esta desobediencia no reúna la cualidad de infracción de carácter penal.

4. Serán consideradas como graves las infracciones a los siguientes artículos:

12.2.ºd) y e), 13.5.º y 6.º, 14.2.ºc) y j), 15.6.º, 16.2.º, 37, 38, 39, 40, 41, 45, 46, 47, 48, 49, 54, 55, 56.

Se considerará infracción grave la producción de daños en los bienes de dominio público cuando su importe supere la cantidad de 10.000 euros y no exceda de 1.000.000 de euros.

Además, la reincidencia en la comisión de una infracción leve en los precedentes 12 meses se considerará infracción grave.

5. Serán consideradas como muy graves las infracciones a los siguientes artículos:

14.2.ºc) y e) (únicamente vertido de productos tóxicos).

Se considerará infracción muy grave la producción de daños en los bienes de dominio público cuando su importe supere la cantidad de un millón de euros.

EK\CV GAO-I-2019-00997

Gainera, aurreko 12 hilabeteetan ere arau-hauste larria egin bada oso arau-hauste larritzat joko da.

*60. artikulua. Zehapenak.*

1. Arau-hauste arinei 60 eurotik 750 eurora bitarteko zehapen-isuna jarriko zaie; larriei 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna; eta oso larriei 1.501 eurotik 3.000 eurora bitartekoa.

Zenbateko horiek aplikagarria izango dira dagokion sektoreko araudiak ezar litzakeen zehapenen kaltetan joan gabe.

2. Aurreko artikuluan xedatu ez diren eta honekin bat datozen bestelako ordenantza hausteek, ez badute zigor moduan inolako kantitaterik zehazturik, 60 eta 750 euro arteko isuna izango dute.

3. Ezartzen diren isunez gain, jabari publikoaren ondasunei egindako kalteak eta eragindako ondorio txarrak ere ordaindu beharko dituzte, udal zerbitzu eskudunek kalteen zenbatekoa neurtu ondoren. Kalteen zenbatekoa nahitaez bete behar moduan xedatuko du zigorra ezartzeko eskumena duen organoak.

4. Arau hauste larri eta oso larrietan tematuz gero, arau hausleari gaitasuna ken lekioke udal baimen eta emakiden onuradun izateko urtebetetik hiru urtera.

5. Ordenantza hau hausteko erabilitako tresnak, salgaiak eta materiala zein haustearen ondorioak bahitzeko eskumena dute udaltzainek, indarreko arauek xedaturikoaren arabera.

*61. artikulua. Borondatezko lana isunaren ordez.*

1. Isun ekonomikoen ordez, beste aukera hauek ere erabil litezke: Kaltea konpontzea eta borondatezko lana egitea.

2. Arau-hausleak, adingabea izanik, konpondu duenean sortutako kalte materiala, eskatu ahal izango du, aurretiazko informazio epean, bere borondatez, eta zehapen espedienteari hasiera eman baino lehen, espedienteari hasiera ez ematea, betiere Udala jakitun ez bada gizalegearen aurkako jokaera izan duenik behin eta berriz.

3. Arau-hausteak gainerako hiritarrei sortutako kalteak ahal den neurrian konpontzeko, arau-hausleak eskatu ahal izango du zehapenaren ordez gainerako hiritarren onurarako borondatezko lanak egitea, dela jokaera zibikoak sortzekoak, dela antzeko ekintzek sortutako kalteak konpontzekoak. Lan horiek borondatezkoak izango direnez, ez dira zehapentzat hartuko.

II ATALA. Arduradunak

*62. artikulua. Arduradunak.*

1. Ekintza publikoetan antolatzailea edo sustatzailea izango da arduraduna.

2. Adingabe batek Ordenantza honetan ezarritakoa hausten badu, arduradunak gurasoak edo adingabearen zaintza duten adin nagusiko pertsonak izango dira.

3. Sustatzaileak eta kontratistak, biok biotara, izango dute obrek eragindako bide publikoa garbitzeko erantzukizuna, baita ibilgailuek karga-deskarga lanetan eta obretako sarrera-irteeran sortutako zikinkeria garbitzekoa ere, hurrengo puntuan adierazitakoaren kaltetan joan gabe.

Además, la reincidencia en la comisión de una infracción grave en los precedentes 12 meses se considerará infracción muy grave.

*Artículo 60. Sanciones.*

1. A las infracciones leves se les aplicará una sanción de multa de 60 a 750 euros; a las graves, de 751 a 1.500 euros; y a las muy graves de 1.501 a 3.000 euros.

Estas cuantías serán de aplicación sin perjuicio de las sanciones que la normativa sectorial correspondiente pueda establecer.

2. Cualesquiera otros incumplimientos a la presente Ordenanza que, conforme a lo establecido en el artículo precedente en concordancia con el presente, no tengan señalada específicamente cuantía económica como sanción, serán sancionadas con carácter leve y multa de 60 a 750 euros.

3. Con independencia de las sanciones que pudieran imponerse, deberán ser objeto de adecuado resarcimiento los daños que se hubieran causado en los bienes de dominio público, así como los perjuicios que se hubieran causado, todo ello previa su evaluación por los servicios municipales correspondientes. El importe de estos daños y perjuicios se fijará por vía ejecutiva por el órgano competente para imponer la sanción.

4. En caso de reincidencia en infracciones graves o muy graves se podrá declarar la inhabilitación del infractor para ser titular de autorizaciones y concesiones por un plazo de uno a tres años.

5. La Policía Local podrá decomisar, tanto los útiles, artículos a la venta e instrumentos empleados en la comisión de las infracciones a la presente Ordenanza, como el resultado o beneficio obtenido en la comisión de la infracción.

*Artículo 61. Los trabajos voluntarios alternativos a las sanciones.*

1. Se establecen como fórmulas alternativas a la imposición de sanciones económicas las siguientes: la reparación del daño y los trabajos voluntarios.

2. Cuando el infractor, que deberá ser menor de edad para acogerse a ésta medida, haya reparado el daño material causado, de forma voluntaria y antes de haberse iniciado el expediente sancionador, podrá solicitar en período de información previa que no se incoe el mismo, siempre y cuando no exista conocimiento por parte del Ayuntamiento de una actitud reiteradamente incívica por parte del infractor.

3. Con el fin de reparar en la medida de lo posible los daños causados al resto de los ciudadanos como consecuencia de una infracción, el infractor podrá solicitar la condonación de la sanción, comprometiéndose a la realización de trabajos voluntarios en beneficio del resto de la comunidad, dirigidos o bien a generar conductas cívicas o a reparar los daños causados por acciones similares. Dado el carácter voluntario de estos trabajos, no será considerada una sanción.

SECCIÓN II. Responsables

*Artículo 62. Responsables.*

1. En los actos públicos será responsable su organizador o promotor.

2. En caso de que un menor contravenga lo prescrito en esta Ordenanza, se considerarán responsables sus padres o las personas mayores bajo cuya custodia se encuentre el menor.

3. Corresponderá al promotor y al contratista solidariamente, la responsabilidad de la limpieza de la vía pública afectada por sus obras, incluida la suciedad producida por los vehículos en operaciones de carga, descarga, salida o entrada de las obras, sin perjuicio de lo señalado en el siguiente punto.

EK\CV GAO-I-2019-00997

4. 29 eta 40.1 artikuluan tipifikatutako arau-hausteei dagokienez, jabea eta gidaria izango dira arduradunak.

5. Animalien jabeak edo horien eramaileak izango dira pertsona eta gauzei sortutako kalte edo eraginen erantzuleak, baita animaliak sortutako zikinkeriarena ere.

6. Kanpo aldeko publizitatearen arau-hausteei dagokienez, erantzulea iragarlea izango da.

7. Lokal, garaje, behe solairu, ganbara eta txapitulen erabiltzaileak eta jabeak, arduradun izango dira eragozpenak sortzen badira horiek biltzeko lokal gisa erabiltzerakoan.

8. Gainerako kasuetan erantzulea Ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duen pertsona bera izango da.

III. ATALA. Kaltea konpontzea eta garbiketaren egoera leheneratzea

*63. artikulua. Kalteak konpontzea.*

1. Arau-hausteek sortutako kalteak konpondu egin beharko dituzte beti erantzuleek.

2. Udalak, aurretik dagokion zehapen espedienteari hasiera emanda, behartuaren kontura beharrezko ekintzak burutuko ditu gauzak lehengo egoeran uzteko, baita dagozkion zehapenak jarri ere.

3. Udaltzaingoak aginduko du Ordenantza honetan ezarritakoaren aurka doazen ekintza arau-hausleak bertatik-bertara geraraztea eta galaraziko du arau-hausleek ekiten jarraitzea, eta dagokien isuna jarriko die.

IV. ATALA. Prozedura

*64. artikulua. Zehapen prozedura.*

1. Isunak ezarriko dira legezko jardunbidea edo gai horren gaineko zigor ahalmena erabiltzeko araudiek ezarritakoa erabilita.

2. Zigor prozedurari ekiteko ahalmena duen organoak, ekintzen jakitun denean, administrazio arau haustea ez ezik, zigor kodeko haustea ere izan litekeela iritziz gero, auzitegiko organo eskudunari jakinaraziko dio, eta hasitako zigor prozedura bertan behera utziko du auzitegi agintariak ebatzi arte zigor prozedura bertan behera geldirik dagoen bitartean, haustea eta prozedura bera iraungitzeko epeak ere bertan behera geldituztzat joko dira.

*Xedapen gehigarria.*

Udalak bere gain hartzen du ordenantza betearazteko beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak jartzeko ardura.

*Xedapen indargabetzaile bakarra.*

Indargabe geratu dira ordenantza honek barne hartzen dituen alorrak arautzeko maila bereko edo txikiago araudiak baldin eta honen edukiaren aurka edo kontraesanean badoaz.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau sartuko da indarrean 15 egunetan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Hondarribia, 2019ko otsailaren 11.—Txomin Sagarzazu Ancisar, alkatea. (997)

4. En las infracciones tipificadas en los artículos 29 y 40.1 serán responsables solidarios el propietario y el conductor del vehículo.

5. Los propietarios, y subsidiariamente las personas que conduzcan animales, son responsables de los daños o afecciones a personas o cosas y de la suciedad causada por el animal.

6. De las infracciones referentes a la publicidad exterior responderá el anunciante.

7. Los usuarios y los propietarios de los locales, garajes, bajeras, áticos o buhardillas, serán responsables en el caso de molestias generadas en la utilización de los mismos como local de reunión.

8. En los demás supuestos será responsable quien vulnere personalmente lo establecido en la presente Ordenanza.

SECCIÓN III. Reparación del daño y ejecución de la reposición del estado de limpieza

*Artículo 63. Reparación del daño.*

1. Los daños ocasionados por los infractores serán siempre resarcidos por las personas responsables.

2. El Ayuntamiento, previa incoación del correspondiente expediente sancionador, ejecutará, a costa del obligado, los actos precisos para reponer las cosas al estado en que se encontraban antes de la infracción, sin perjuicio de las sanciones correspondientes.

3. La Guardia Municipal ordenará que cesen los actos flagrantes que contravengan lo preceptuado en esta Ordenanza y deberá impedir que los infractores desobedientes continúen ejecutándolos, sin perjuicio de la sanción que corresponda.

SECCIÓN IV. Procedimiento sancionador

*Artículo 64. Procedimiento sancionador.*

1. La imposición de sanciones se ajustará al procedimiento legal o reglamentariamente establecido para el ejercicio de la potestad sancionadora en esta materia.

2. Cuando el órgano competente para iniciar el procedimiento sancionador tuviera conocimiento de que los hechos, además de poder constituir una infracción administrativa, pudieran ser constitutivos de una infracción penal, lo comunicará al órgano judicial competente, absteniéndose de proseguir el procedimiento sancionador, una vez incoado, mientras la autoridad judicial no se haya pronunciado, sin perjuicio de la adopción, por parte del Ayuntamiento de medidas cautelares para reponer las cosas al estado en que se encontraban antes de la infracción. Durante el tiempo que estuviera en suspenso el procedimiento sancionador, se entenderá suspendido tanto el plazo de prescripción de la infracción como la caducidad del propio procedimiento.

*Disposición adicional.*

El Ayuntamiento se compromete a poner los recursos materiales y humanos necesarios para el cumplimiento de la ordenanza.

*Disposición derogatoria única.*

Quedan derogadas cuantas disposiciones del mismo o inferior rango regulen las materias contenidas en esta Ordenanza, en cuanto se opongan o contradigan al contenido de las mismas.

*Disposición final.*

Esta Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Hondarribia, a 11 de febrero de 2019.—El alcalde, Txomin Sagarzazu Ancisar. (997)

EK\CV GAO-I-2019-00997